

Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN

83/2020 TXOSTENA

Gaia: Idazkaritza saileko Administrazio Orokorreko Teknikariaren praktikaldiaren inguruko gaitasun txostena

Espediente tramitatzaileria: Idazkaritza Saila

Espediente zenbakia: IDA_DEK0777 (2019)

Txostenaren oinarria: Toki Erakundeen Izaera Nazionalako Gaikuntzadun Funtzionarioen Araubide Juridikoa onartzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 2.2 artikulua eta Administrazio Orokorreko Teknikariaren hautaketa prozesuko oinarri espezifikoaren (2019ko ekainaren 19ko 116. BAOn argitaratuta) 9. artikulua

Aurrekariak

Lehena.- 2019ko maiatzaren 24ko 1187. Alkatetza Dekretu bidez Administrazio Orokorreko Teknikari plaza bat (Kodea: 1106502) jabetzan betetzeko hautaketa prozesuaren oinarriak onartu ziren eta 2019ko ekainaren 19ko 116. zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialen argitaratu ziren.

Bigarrena.- 2020ko ekainaren 15ean 1390 Alkatetza Dekretu bidez Nerea Lopez Angulo andrea praktiketako funtzionario izendatu zen. Izendapen horrek 2020ko uztailaren 6tik aurrera izan ditu ondorioak.

Hirugarrena Hautaketa prozesuko oinarri espezifikoaren 9. artikulua zera dio:

9. Praktika aldia eta izendapena

Hautaketa-prozeduraren beste fase bat izango da praktikaldia. Bertan izango da Lehiaketa-Oposizioaren fasean puntuaziorik onena lortu duen hautagaia. Fase hori plaza dagoen sailean egingo da, gehienez ere sei hilabetez.

Datak sasoiz iragarriko dira. Ebaluazioko prozedura jarraia izango da praktikaldian. Aldi horretan, hamabost egun natural baino gehiagoko ausentzia justifikatuak daudenean, egun solteetan edo jarraian, ebaluazioa eten egingo da. Kasu horretan, interesdunak aldi osoa bete beharko du.



Izendatzen den hautagaia praktiketako funtzionario izendatuko da eta eskubidea izango du udal langileen ordainsariak arautzen dituen Erabakian ezarritako ordainsariak jasotzeko; era berean, alta emango zaio funtzionarioei aplikatzen zaien Gizarte Segurantzako araubidean. Egoera horretan iraungo du izendapen-dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo praktikaldian deskalifikatu arte.

Deskalifikatzeko arrazoiak ondo justifikatuta egongo dira eta hauek izan daitezke:

— Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen 5/2015 EDLaren 52, 53 eta 54. artikuluetan zehaztutako betebeharrak 3 biderrez edo gehiago ez betetzea.

— Lan egutegia, jardunaldia, baimen, lizentzi eta oporren inguruan araututako 3 biderrez edo gehiago ez betetzea.

— Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko beharrezkoak gaitasunen moduan oinarri hauetako 1. atalean zehaztutakoen urritasun nabaria.

— Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko oinarri hauetako 1. atalean zehaztutako gutxieneko ezagutzen urritasun nabaria.

Deialdiko plazako eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak etengabe ebaluatuko dira praktikaldian.

Hautagaia gai edo ez gai kalifikatuko da eta beharrezkoa izango da gaitasuna lortzea hautaketa-prozedurako fase hau gainditzeko.

Praktikaldia amaituta, saileko buruak hautagaiaren ahalmenari eta baldintzei buruzko txosten bat egingo du eta behar den gaitasun-maila lortu duen ala ez adieraziko du, modu arrazoituan.

Txosten hori hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio, eta horrek, txosten azterturik, atal honetan zehaztutako deskalifikatzeko arrazoiak ematen diren edo ez aztertuta, praktiketako fasea gainditu duen ala ez erabakiko du.

Hori egin ondoren, fasea gainditu duen hautagaia izendatzeko proposamena egingo dio ebazpena hartzeko organo eskudunari. Hautagaiaren izendapena praktika aldiko edozein



unetan utzi daiteke bertan behera, betiere hautagaiak gaitasun edo aprobetxamendu egokia izan ez badu, atal honetan zehaztutako baldintzen arabera egiaztatuko dena. Horrela denean, saileko buruak proposamena egingo dio hautaketa-prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta horrek, proposamena aztertuta, izendapena bertan behera utzi ala ez erabakiko du; hori egin ondoren, erabakitakoaren proposamena egingo dio ebazpena hartzeko organo eskudunari.

Argudioak

Oinarri espezifikoan 9. artikulua zehaztutako balorazioa egiteko, Administrazio Orokorreko Teknikariaren eginkizunak eta zereginak behar bezala betetzeko eskatzen diren trebeziak eta gaitasunak etengabe ebaluatu dira praktikaldian.

Praktikaldi horretan ez da eman Nerea Lopez Angulo Administrazio Orokorreko Teknikariaren hautaketa prozesurik deskalifikatzeko arrazoirik. Izan ere, oinarriekin bat, deskalifikatzeko hurrengo lau arrazoiak etengabe aztertu izan dira:

— Enplegatu Publikoan Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen 5/2015 EDLaren 52, 53 eta 54. artikuluetan zehaztutako betebeharrak 3 biderrez edo gehiago ez betetzea.

Esan beharra dago Enplegatu Publikoan Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen 5/2015 EDLaren 52, 53 eta 54. artikuluekin bat Nerea Lopez Angulok enplegatu publikoaren betebeharrak diligentziaz bete izan dituela, interes orokorra defendatuz eta ordenamendu juridikoa kontuan hartuz. Are gehiago, praktikaldian egon den denboran hurrengo printzipioetan oinarritu dela ikusi izan da: objektibotasuna, osotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna eta zerbitzu publikoaren defentsa, besteak beste. Horrela antzeman daiteke, adibidez, Itxas-Gane futbol zelaiko erabilera hitzarmen bidez egiteko proposamen politikoan izan duen erantzunari. Izan ere, hitzarmenaren ez legezotasuna defendatu izan du eta emakida edo baimenaren tresnak erabiltzeko defentsa egin izan du.



Bere eguneroko zereginak burutzeko 53. artikuluko printzipio etikoak bete izan ditu. Aurretik komentatutakoaz gain hurrengoak azpimarratu daitezke:

- Bere jokabidean ez da ekintza diskriminatzailek antzeman.
- Efikazia, efizientzia eta ekonomiaren aldeko proposamena egin izan ditu, beti ere, interes orokorra eta Bermeoko udalaren helburuak betetzeko asmoz (1. Eranskineam kontratazio arloa efikaz eta efizienteagoa izateko eranskinak moldatzeko proposamenaren aurkibidea).
- Zereginak modu diligentean eta epea burutu izan ditu (2. eranskinean praktikaldian burututako zereginak).
- Bere funtzioagatik ezagutzen dituen gaiak diskrezioz gorde izan ditu.

54. artikuluko jokabide printzipioak ere burutu izan ditu, azpimarratzekoak izan dira hurrengoak:

- Herritarrak, nagusiak eta gainerako lankideak errespetuz tratatu izan ditu.
- Modu diligentean jardun du, ordutegia eta jardunaldia betez.
- Nagusien instrukzioak eta aginduak bete izan ditu (eguneko zereginen fitxan jasotakoak bete izan ditu, indarrean dauden barne instrukzioak bete izan ditu...).
- Herritarrei informazio publikoa eman die, batez ere, kontratazio arloan enpresek eskatutako informazio publikoa.
- Formakuntzetan parte hartu izan du. Adibidez, kontratazioko plataformaren erabilerari buruzko formakuntzan edo datu pertsonalak babesteko formakuntzan.
- Lan arloko segurtasun eta osasun neurriak bete izan ditu (maskara erabiltzea, distantzia mantentzea...)



- Herritarren hizkuntza eskubideak errespetatu izan ditu.

— **Lan egutegia, jardunaldia, baimen, lizentzi eta oporren inguruan araututako 3 biderrez edo gehiago ez betetzea.**

Nerea Lopez Angulok lan egutegia eta jardunaldia errespetatu izan ditu, ordutegi kontroleko programan ikus daitekeenez. Izan ere, indarrean dagoen lan egutegia errespetatuta laneratu da eta justifikatutako arrazoi barik ez du kale egin. Gainera, 2020ko abenduaren 9ra arte lan ordutegia bete izan du bete beharreko 727,20 orduz lan eginez.

Baja egoeran egon izan da 2020ko urriaren 27tik 2020ko urriaren 30era, eta medikuaren egiaztagiri bidez justifikatu izan du egoera hori.

Uztailaren 6tik lanean egoteagatik 13 opor egun eta 3 baimen egun dagozkie. Eta horietatik 4 opor egun eta 3 baimen egun disfrutatu izan ditu gaurko datara arte.

Beraz, lan egutegia, jardunaldia, baimen, lizentzi eta oporren inguruan araututakoa bete izan ditu.

— **Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko beharrezkoak gaitasunen moduan oinarrietako 1. atalean zehaztutakoen urritasun nabaria.**

Administrazio Orokorreko Teknikariaren misioa, funtzioak eta zereginak betetzeko hurrengotrebeziak eta gaitasuna egiaztatuta gelditu dira:

- **Arautegiaren ezagutza:** Arautegiaren ezagutza nabaria izan da. Izan ere, hainbat eztabaida juridiko izan ditugu, batez ere, kontratazio eta ondare gaietan eta horietan argi gelditu da gaiekiko daukan ezagutza maila.

Gainera, bideratutako proposamenetan eta egindako txosten juridikoetan ezagutza maila altua duela erakutsi izan du. Adibidez, Lamerako kioskoen eta Erretenen txurrotegia ipintzeko jabari publikoaren emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzeko proposamenean (3. eranskina) zein telekomunikazio zerbitzuen esparru-akordioaren ondoriozko kontratuaren esleipena egiteko proposamenean (4. eranskina).



- **Arazoak konpontzeko gaitasuna:** Arazoak konpontzeko gaitasuna erakutsi izan du, esate baterako, sailen arteko txarto ulertuak ekiditeko irtenbideak bilatu izan ditu, irizpideak eman izan ditu eta elkar ulertzeko gomendioak eman izan ditu. Horretaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bermeoko Udalaren arteko interpretazio arazoiei aurre egiteko irtenbideak planteatu izan ditu. Adibidez, kontratazio epeak eten izan dira BFAaren irizpidearekin bat egiteko eta esleitutako enpresaren eskubideak ez kaltetzeko.
- **Estresari aurre egiteko gaitasuna:** egokitutako zereginak, batez ere, kontratazio arlokoak eta ondarearen arlokoa presio askokoak dira; izan ere, enpresak, politikariak, lankideen interesak eta presioak jasan behar izaten dira eta horiei aurre egin die estres arazo barik.
- **Taldean lan egiten jakitea:** Talde lanean parte hartu du eta eskatutakoa bete izan du. Izan ere, kontratazio lan taldean, kontratazio mahaietan, idazkaritza saileko batzarretan... parte hartu izan du ekarpenak eginez eta lankidetzan erakutsiz. Horretaz gain, oso ondo integratu da idazkaritza sailean eta Udalean. (5. eranskinean kontratazio lan taldeko batzar bateko akta).
- **Aldaketei aurre egiteko gaitasuna:** Bizi dugun egoera berezi eta aldakorrean erakutsi izan du aldaketei aurre egiteko gaitasuna daukela (Covid-en ondoriozko neurriak betetzen eta betearazten). Are gehiago, ematen du barneratuta daukela legedian eta administrazioaren funtzionamenduan aldaketak egongo direla eta horiei aurre egiteko prest dagoela. Izan ere, zuzenbidea ez da estatikoa eta hori erakutsi du bere txostenetan irizpide ezberdinak aipatuz. Adibidez, kontrataziorako proposatutako formulak aldatu izan ditu eta horren zabalkundea egin izan du udalean aldaketa horiek dakartzan ondorioekin. (6. eranskinean kontratazio publikoko lizitazio prozeduren formulak agiria)
- **Esperientzia:** Bere esperientzia partekatu du, bai kontratazioan, bai hirigintzan, bai ondarean eta esperientzia horien ondorioz aldaketak proposatu izan ditu. Adibidez, kontrataziorako ereduak moldatu izan ditu, kutxa aurrerapen inguruan beste udal batzuetan dauden irizpideak azaldu ditu edota hirigintzako segregazio lizentzien



ereduak partekatu izan ditu (7. eranskinean partekatutako hirigintzako segregazio lizentzien ereduak).

— Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko oinarrien 1. atalean zehaztutako gutxieneko ezagutzen urritasun nabaria.

Aholkularitza juridikoa eman du, araudi, jurisprudenzia eta doktrina juridikoaren jarraipena eta eguneratzea egin izan du eta kontratazio eta ondarearen espedienteen izapidetza burutu izan du.

— Kontratazioan:

- Baldintza agiriak prestatu eta ereduak eguneratu ditu
- Kontratuak erredaktatu ditu eta erredaktatzen lagundu du
- Kontratazio prozedurak kudeatu ditu
- Kontratazio administratiboarekin lotuta dauden espedienteetan aholkularitza eta lankidetzak eman du, bai udaleko sailei, bai erakunde autonomoetakoiei

— Ondarean:

- Ondareko espedienteak tramitatu izan ditu, baldintza agiriak prestatuz, erabaki proposamenak bideratuz, etab.
- Udal ondasunen inbentarioa egunean izateko neurriak hartu izan ditu: ondasunak erregistratzeko neurriak hartu...

Funtzio eta zereginak egikaritzeko ezagutza maila altua erakutsi izan du. Izan ere, egindako proposamen eta eredu guztietan oinarri juridiko garatua erakutsi izan du, legedia, jurisprudenzia eta, sarritan, doktrina ere aipatzen.

Adibide moduan dauzkagu jabari publikoan loreak banatzeko baimen-eskariaren txosten juridikoa (8. eranskina) edo Bermeoko Udaleko, Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko eta Kirol Patronatuko garbitasun kontratuaren txosten juridikoa (9. eranskina)



Ondorioa

Aipatutako guztia balorazioaren laburpen taulan jaso da:

	Deskalifikatzeko arrazoiak	Balorazioa	Eranskinak
1	Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Testu Bateratua onartzen duen 5/2015 EDLaren 52, 53 eta 54. artikuluetan zehaztutako betebeharrak 3 biderrez edo gehiago ez betetzea:	5/2015 EDLaren 52, 53 eta 54. artikuluetan zehaztutako betebeharrak eta printzipioak bete dira.	Erantsita erabaki proposamena eta egunero egindako zereginak.
2	Lan egutegia, jardunaldia, baimen, lizentzi eta oporren inguruan araututakoa 3 biderrez edo gehiago ez betetzea.	Lan egutegia, jardunaldia, baimen, lizentzi eta oporren inguruan araututakoa bete da.	Intraneteko ordutegi kontrolaren atalean eta hartu emonetan egiaztatuta daude.
3	Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko beharrezkoak trebezia eta gaitasunen moduan oinarrietako 1. atalean zehaztutakoen urritasun nabaria.	Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko beharrezko trebezia eta gaitasuna erakutsi du.	Erantsita erabaki proposamenak eta kontratazio lan taldeko akta.
4	Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko oinarrietako 1. atalean zehaztutako gutxieneko ezagutzen urritasun nabaria.	Plazaren misio, funtzio eta zereginak betetzeko oinarri hauetako 1. atalean	Erantsita txosten juridikoak.



		zehaztutako ezagutza maila altua izan da.	
--	--	--	--

Aurretik aipatutako guztia kontuan hartuz, Nerea Lopez Angulok erakutsi du idazkaritza saileko **Administrazio Orokorreko Teknikariaren funtzioak burutzeko ahalmena duela eta baldintzak betetzen dituela. Beraz, Administrazio Orokorreko Teknikaria izateko gaitasun-maila lortu du.**

Hori da nire ustea, oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, epaimahaiak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan

Jurdana Uriarte Lejarraga

Idazkaritza saileko sailburua



1. Eranskina

AURKIBIDEA

LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- I. Erantzukizuneko aitorenaren eredia
- II. Europako kontratazio-agiri bakarra (DEUC)
- III. Eskaintza ekonomikoaren eredia (eta, hala badagokio, formula bidez ebalua daitezkeen gainerako irizpideak)
- IV. Hala badagokio, ABEEaren aitoren-eredua
- V. Argibideak eskatzeko eredia, lizitazioan emandako agiriekin

ESLEIPENDUNEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- VI. Kaudimen ekonomikoa aurkezteko eredia
- VII. Kaudimenteknikoa aurkezteko eredia
- VIII. Baliabideak atxikitze konpromisoa aurkezteko eredia
- IX. Finantza-erakundearen abal-eredua edo kauzio-eredu segurua
- X. Aseguru-etxearen ziurtagiriaren eredia
- XI. Kaudimenaren integrazioaren aitoren eredia

KONTRATISTAK EXEKUZIO FASEAN AURKEZTU BEHARREKOA

- XII. Azpikontratazioaren komunikazio-eredua
- XIII. Enpresa jardueren koordinazio eredia

ARGIBIDEAK ETA INFORMAZIOA

- XIV. Datuen babesari buruzko informazioa



EGUNEKO ZEREGINEN FITXA
Idazkaritza Saila
Nerea Lopez Angulo
2020ko uztailaren 6tik 2020ko abenduaren 9ra arte

LANPOSTUA:	IDAZKARITZAKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA
IZEN ABIZENAK:	NEREA LOPEZ
DATA: 2020-07-06	LABURPENA: <ul style="list-style-type: none"> - Egokitzapena eta lanaren plangintza - Kontratazio plangintzaren informazio eguneratua jaso (lehentasunen arabera)
DATA: 2020-07-07	<ul style="list-style-type: none"> - Egokitzapena eta lanaren plangintza - Kontratazio lan talderako deialdia bidali - Kontratazio plangintzaren informazio eguneratua jaso (lehentasunen arabera) - Lehentasunezko kontratuekin hasi
DATA: 2020-07-08	<ul style="list-style-type: none"> - Lehentasunezko kontratuekin hasi - GEZ kontratuaren pleguaren eta txostenaren zuzenketak bidali
DATA: 2020-07-09	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio lan taldeko gai zerrenda zehaztu eta deialdia bidali Udaleko iragarkiak kudeatu eta iragarpenak bideratzeko kontratuaren luzapenaren txostena egin eta euskaratu - Pendiente dauden espedienteak gainbegiratu eta tramitatzen hasi - FNMT txartelaren bila joan
DATA: 2020-07-10	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio Mahai Orokorra aldatzeko proposamena bideratu - Kontratazio Mahai Iraunkorra bideratu, bai Alkatearena eta bai Osoko Bilkurarena - Jabari Publikoa okupatzeko BBKren eskaria aztertu - Aholkularitza juridikoaren kontratuaren gonbidapenak bidali eta kontratugilearen profilean argitaratu - Berdintasun planaren kontratuaren espedientea izapidetu publizitate gabeko negoziazio prozeduraren bidez - Iragarkien kontratuaren txostenarekin jarraitu - Foru Aldundiarekin harremanetan ipini mezularitza kontratua zentraletik aterako duten edo ez argitzeko. - Proyecto CSP kontratu txikiaren esleipena bideratu - GEZ kontratuaren plegu administratiboak gainbegiratzea
DATA: 2020-07-13	<ul style="list-style-type: none"> - GEZ kontratuaren pleguak gainbegiratzea - Aholkularitza juridikoaren espedientearen gonbidapenak bidaltzea - Garbiketa zerbitzuaren kontratua esleitzeko prozedurari hasiera eman, Iñigorekin hitz egin - Kontratuaren luzapenekin jarraitu - Kreditu atxikipen eskariak bidali - Sinadura elektronikoa aktibatu
DATA: 2020-07-14	<ul style="list-style-type: none"> - Saileko batzarra - GEZ kontratuaren pleguak gainbegiratzea



DATA: 2020-07-15

- Kontratuen luzapenekin jarraitu
- Aholkularitza juridikoaren espedientearen gonbidapenak bidaltzea eta publikatzea
- 13:30etan batzarra kultura teknikariarekin arloko kontratuen inguruan jarduteko
- Ondare arloko planifikazioa eta egin beharrekoak aztertu

DATA: 2020-07-16

- 9:30etan errekonozimendu medikoa daukat Bilbon, beranduago helduko naiz
- Luzapenekin jarraitu, beharizan txostena eta txosten juridikoa bukatuta daude, ekonomia arlora esleitu behar da kreditu atxikipenerako
- Idazkaritzako kontratuen excel taula bete
- GEZ pleguak gainbegiratu
- Alkatetzaren Kontratazio Mahaiko idazkaritza aldaketaren dekretua sinadurara igo. Osoko Bilkurakoa pendiente dago
- Aholkularitza juridikoko kontratuko gonbidapenak bidali eta publikatu
- Berdintasun planaren espedientea aztertu eta tramitazioarekin jarraitu
- Iñigorekin kontaktuan ipini garbiketa zerbitzuaren kontratua martxan ipintzeko, bukaera epea baino 3 hilabete lehenago publikatu behar da
- Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan ipini ondare katalogatuaren inguruan jarduteko (plakak)
- Ondasunen aldaketarako fitxa prestatu Olatzekin batera

DATA: 2020-07-17

- Aholkularitza juridikoko kontratuko gonbidapenak bidali eta publikatu
- Berdintasun planaren espedientea aztertu eta tramitazioarekin jarraitu
- Idazkaritzako kontratuen excel taula bete
- Kontratazio lan-taldearen batzarra 12:00etan
- Garbiketa zerbitzuko kontratuaren prozedurarekin hasi
- Sinadurara igo Kontratazio Mahaiko dekretua eta erabaki-proposamenak
- BFA kontratazio zentralera bidali posta zerbitzuaren datuak

DATA: 2020-07-20

- Posta zerbitzuko datuak bildu eta BFA bidali zentralera atxikitzeko
- Berdintasun planaren kontratua aztertu
- Aholkularitza juridikoko kontratua publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez hasi
- Kontratuaren luzapena kontu-hartzaileari esleitu fiskalizazio txostena egiteko
- Drager safety kontratua begiratu
- Kontratazio zentralizatuaren irispideak landu eta ereduak egin

DATA: 2020-07-21

- Posta zerbitzuko datuak bildu eta BFA bidali zentralera atxikitzeko
- Berdintasun planaren kontratua aztertu
- Aholkularitza juridikoko kontratua publizitate gabeko prozedura negoziatu bidez hasi
- Garbiketa zerbitzuaren kontratuaren hasierako dokumentuak prestatu
- Kontratazio lan-taldeko akta prestatu
- Drager safety kontratua begiratu
- Kontratazio zentralizatuaren irispideak landu eta ereduak egin
- Kontabilitateko aplikaziorako sarbidea lortu
- Berdintasun planaren kontratuaren proposamenak aurkitu informatikoarekin
- Aholkularitza juridikoko kontratua publizitate gabeko prozedura negoziatu



	<ul style="list-style-type: none"> bidez hasi • Garbiketa zerbitzuaren kontratuaren hasierako dokumentuak prestatu • Kontratazio lan-taldeko akta prestatu • Kontratazio zentralizatuaren irizpideak landu eta ereduak egin
DATA: 2020-07-23	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio lan-taldeko akta prestatu - Kontratazio zentralizatuaren irizpideak landu eta ereduak egin - Posta zerbitzuko taula berria bete BFA Kontratazio Zentralera bidaltzeko - Berdintasun planaren espedientea aurkitu kontratazio plataforman - Garbiketa zerbitzuaren espedientea begiratu. Kirol Patronatuarekin hitz egin - Euskadiko Kontratazio plataformarekin hitz egin formaziorako - Pleguetan, formalizazio atalean, zegoen akatsa zuzendu
DATA: 2020-07-24	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun planeko kontratuaren plikak zabaldu - Pleguetan datuen babeserako klausulak txertatzea aztertu - Kontratazio zentralizatuaren irizpideak landu eta ereduak egin - Garbiketa zerbitzuaren espedientearekin jarraitu. Justifikazio memoria bukatu
DATA: 2020-07-27	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun planaren proposamena aztertu - Garbiketa zerbitzuaren justifikazio memoria bukatu 10:00-12:00 bitartean kurtso online daukat Euskadiko Kontratazio Plataformaren inguruan - Formulak aztertu
DATA: 2020-07-28	<ul style="list-style-type: none"> - Subsanazio errekerimendua prestatu (Berdintasun planaren kontratua) - BAO n argitaratu alkatetzaren kontratazio mahaiaren aldaketa - Justifikazio memoria bukatu - Formulekin jarraitu - Datuen babeserako klausula bereziak aztertu
DATA: 2020-07-29	<ul style="list-style-type: none"> - Ondarearen zalantzen inguruan informazioa eman - Berdintasun planaren kontratua tramitatu - 10:00-12:00 kurtso online daukat Euskadiko Kontratazio Plataformaren inguruan - Justifikazio memoriaren ereduak egin - Kontratazio lan-talderako gaiak prestatu
DATA: 2020-07-30	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio lan-taldearen deialdia bidali - Garbiketa zerbitzu kontratuaren espedientea - Berdintasun planaren kontratuaren espedientea - Luzapenak - Ondare espedienteak
DATA: 2020-08-03	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun plana kontratua izapidetu (egiaztatu errekerimenduari erantzun dioten) - Garbiketa zerbitzua kontratua (Ramonekin kontaktuan ipini eta argitu puntu batzuk) - Datuen babeserako klausulak ereduetan txeratu - Garajeak (izapidea konprobatu)
DATA: 2020-08-04	<ul style="list-style-type: none"> - Baldintza agirien eranskin ereduak moldatuta. - Datuen babeserako klausulak sartuta ereduetan. - TGB kontratazio mahaiko akordioa BAOra bidali. - Berdintasun plana jarraipena eginda. - Ondare eskakizunei erantzun - Keytron elektronikaren berraztertze errekurtsua.



DATA: 2020-08-05	<ul style="list-style-type: none"> - GOUP desegitearen txostena. - Keyton elektronikaren berraztertze errekurtsua (udaltzaingoa titularra) - Bidalitako kontratazioko zalantzak argitu teknikariei (Udaltzaingokoa argituta). - Aholkularitza juridikoaren iragarkia prestatu profilean argitaratzeko.
DATA: 2020-08-06	<ul style="list-style-type: none"> - GOUP desegitearen txostena. - BAO n argitaratutako iragarkia zuzenduta. - Berdintasun planaren errekerimenduari erantzun dioten egiaztatu eta ez badute erantzun hutsik geratu dela adierazi. - Aholkularitza juridikoaren iragarkia prestatu profilean argitaratzeko. - Bidalitako kontratazioko zalantzak argitu teknikariei.
DATA: 2020-08-07	<ul style="list-style-type: none"> - GOUP desegitearen txostena - Kontratazio lan-taldeko kronograma zabaldu - Berdintasun planaren errekerimenduari erantzun dioten egiaztatu eta ez badute erantzun hutsik geratu dela adierazi - Aholkularitza juridikoaren iragarkia prestatu profilean argitaratzeko - Bidalitako kontratazioko zalantzak argitu teknikariei
DATA: 2020-08-10	<ul style="list-style-type: none"> - Egunkarietan argitaratu beharreko iragarkiak kudeatu eta iragarpena bideratzeko zerbitzu kontratuaren luzapenaren dekretua prestatu - Berdintasun planaren lizitazioa hutsik deklaratu (ez dute dokumentazioa garaiz subsanatu) - GOUP desegiteko txostena (eginda) - Aholkularitza juridikoaren kontratuaren iragarkia (eginda)
DATA: 2020-08-11	<ul style="list-style-type: none"> - Egunkarietan argitaratu beharreko iragarkiak kudeatu eta iragarpena bideratzeko zerbitzu kontratuaren luzapenaren dekretua sinadurara igota. - Berdintasun planaren lizitazioa hutsik deklaratu - sinadurara igota. - Ondareari buruzko eskaerak erantzunda. - Kultura Teknikariarekin batzarra zine kontratuaren inguruko zalantzak argitzeko.
DATA: 2020-08-12	<ul style="list-style-type: none"> - Justifikazio memoriaren ereduak bukatu eta Swalen ipinita. - Aholkularitza juridikoaren kontratu espedientea gainbegiratu, iragarkia zuzendu eta gonbidapenak prestatuta. - Txurrotegiaren eskaria aztertu.
DATA: 2020-08-13	<ul style="list-style-type: none"> - Pleguen eranskinak bukatuta (datuen babesari buruzko zuzenketak sartuta). - Konfidentzialtasuna eta datu pertsonalen tratamenduari buruzko klausula bukatuta. - Guretxeko bideak lagatzeko espedientea artxiboari eskatuta eta antzineko dokumentuak aterata: zehaztu ze lagatu zen. - Jabetza erregistratzailearekin hitz eginda ondasunak inskribatzeko.
DATA: 2020-08-14	<ul style="list-style-type: none"> - Garbiketa zerbitzuaren kontratuaren baldintza agiriak berrikusi eta atal berriak sartu. - Kontratuaren arduradunei informazio gehigarria eskatu. - Ondare inbentarioari buruzko prozedura aztertu eta zehaztu (ereduak gainbegiratu) - Bideen lagapena inskribatzeko ziurtagiria prestatu.
DATA: 2020-08-17	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratugilearen profilean Alkatetzari lagunduko dion kontratazio



DATA: 2020-08-18	<p>mahaiaren aldaketa eta Tokiko Gobernu Batzarrari lagunduko dionaren akordioak argitaratzera bidalita.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Garbiketa zerbitzua kontratuaren karatula bukatu eta gainbegiratu (datu gehiago sartu) - Gonbidapenak prestatu eta bidali (aholkularitza juridikoaren kontratua) - Kontratugilearen profilean kontratuaren luzapena argitaratzea bidaltzea eta REVASCONen inskribatuta. - Kontratugilearen profilean berdintasun planaren prozedura hutsik deklaratzearen dekretua argitaratzera bidalita. - Garbiketa zerbitzu kontratuaren karatula bukatu (azken atalak gehitu eta euskaratu). - Inbentariotik Guretxeko bideen lagapenaren fitxa aterata.
DATA: 2020-08-19	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratuaren luzapenen justifikazio txostena eginda. - Aholkularitza juridikoaren gonbidapenak eta iragarkia itzultzera bidalita. - Pleguen karatula bukatu - Subrogazioari buruzko eranskina prestatu
DATA: 2020-08-20	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratuaren luzapenaren justifikazio txostena sinadurara igo eta kreditu atxikipen eskaera kontabilitatera pasatu. - Pleguen karatula bukatu (Infigorekin zehaztu behar dituzten bait atal) - Subrogazioari buruzko eranskina prestatu (datuak pasatu behar dizkirate) - Iragarkia prestatu
DATA: 2020-08-21	<ul style="list-style-type: none"> - Plegu administratiboak eta karatula errepasatu eta konprobatu atalak bate datozela. - Iragarkia prestatu. - Txostena prestatzen hasi. - Kreditu atxikipena eskaria prestatu. - Hitzarmena prestatu Kirol Patronatua eta GOUPEkin.
DATA: 2020-08-24	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol Patronatuko zuzendariarekin eta GOUPEko zuzendariarekin hitzordua datu gehigarriak batzeko, zalantzak argitzeko eta zuzenketak egiteko. - Subrogazio datuak eskatu zerbitzu sailari. - Hitzarmena prestatu Kirol Patronatua eta GOUPEkin - Txostenarekin jarraitu
DATA: 2020-08-25	<ul style="list-style-type: none"> - Batzarra 12:00etan Errenta teknikariarekin kontratatzio prozeduraren zalantzatarako - Txostena bukatu - Pleguetan azkenengo atalak sartu - Gaztainen baimena aztertu eta txostena prestatu
DATA: 2020-08-26	<ul style="list-style-type: none"> - Karatularen azken puntuak gehitu - Jabari publikoan elikagaiak saltzeko oinarriak prestatu - Gaztainen baimena aztertu eta txostena prestatu - Ondarea inskribatzeko ziurtagiriak prestatu
DATA: 2020-08-27	<ul style="list-style-type: none"> - Jabari publikoa: gaztainen eta txurrotegia ipintzeko oinarria garatu - Gaztainen baimena aztertu eta txostena egin - Kirol Patronatuko eta GOUPEko plegu teknikoak gainbegiratu
DATA: 2020-08-28	<ul style="list-style-type: none"> - Bide publikoan kirola egiteko baimena aztertu eta ebatzi - Gaztainen baimen txostena bukatu - Txurrotegia ipintzeko oinarriak bukatu
DATA: 2020-08-31	<ul style="list-style-type: none"> - Kirol Patronatuko pleguak eta justifikazio txostena gainbegiratu



DATA: 2020-09-01	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmenaren memoria egin - Kirola bide publikoan egiteko dekretuaren erantzuna egin - Gaztainen baimen dekretua egin
DATA: 2020-09-02	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza juridikoaren kontratuaren iragarkia sinadurara bidali eta gonbidapenak prestatu. - Aholkularitza juridikoaren kontratuaren lizitazio espedientea Euskadiko kontratugialeren plataforman altan eman. - Iragarkia kontratugilearen plataformara bidali argitaratzeko. - Garbiketa zerbitzu kontratuaren pleguak gainbegiratu (eginda)
DATA: 2020-09-03	<ul style="list-style-type: none"> - Hitzarmenaren memoria bukatu. - Erakunde Autonomoek bidalitako informazioa pleguetan txertatu. - Teknikarien kontratazio arloko zalantzak argitu. - 11:30 kontratazio mahaia - 12:00 erakunde batzarra
DATA: 2020-09-04	<ul style="list-style-type: none"> - Gaztainak saltzeko postua jabari publikoan ipintzeko txostena (eginda). - Hitzarmenaren memoria bukatuta. - Kontratazio arloko zalantzak argitu
DATA: 2020-09-07	<ul style="list-style-type: none"> - Garbiketa zerbitzuaren kontraturako falta diren datuak eskatu 11:30 kontratazio mahaia. - Kontratuaren luzapenerako atxikipena eginda dagoen galdetu eta txostena egin. - Ondareko hitzarmenak aztertu
DATA: 2020-09-11	Opor eguna
- DATA: 2020-09-14	Opor eguna
DATA: 2020-09-15	<ul style="list-style-type: none"> - Fakturak onetsi - Gaztainak bide publikoan saltzeko txostena bukatuta. - Hitzarmena onartzeko dekretua prestatuta. - Arloek garbiketa zerbitzurako eskatutako datuak pleguetan erantsi. - Berdintasun planaren beharrian txostena eginda.
DATA: 2020-09-17	<ul style="list-style-type: none"> - Gaztainak bide publikoan saltzeko txostena bukatuta. - Berdintasun planaren justifikazio memoria eginda. - Kirol Patronatuko zuzendariari bidali kontratazio bateraturako hitzarmena euren batzarrean onartzeko. - Garbiketa zerbitzu kontraturako falta diren puntuak eskatu teknikariei (eginda)
DATA: 2020-09-18	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun planaren justifikazio memoria bukatuta eta plegu administratiboak zein eranskinak ere. - Garbiketa zerbitzu kontraturako falta ziren datuak gehitu. - Teknikarien kontratazio arloko zalantzak argitu - Gune publikoetan grabazioak egiteko araudia (portua eta gaztelugatxe bereiziz) - Gaztain erreak bide publikoan saltzeko proposamena egin eta bideratuta.
DATA: 2020-09-18	<ul style="list-style-type: none"> - Inbentarioa eguneratzeko datuak eskatuta. - Aholkularitza juridikoaren kontraturako proposamenak aurkeztu diren egiaztatu - Berdintasun planaren RC eskatuta. - Berdintasun planaren pleguak bukatuta. - Gaztain erreak bide publikoan saltzeko txartela eginda.



DATA: 2020-09-21	<ul style="list-style-type: none"> - Kurtso online 10:00-12:00 REVASCON - Kontratazio lan-taldeko akta egin eta deialdia bidali - Kasinoan dauden lokalen harrera formala sinadurara bidali eta Jabetza erregistrora bidali - Aholkularitza juridikoaren kontratuan aurkeztutako eskaintzen eginbidea egin - Berdintasun planaren iragarkia prestatu.
DATA: 2020-09-22	<ul style="list-style-type: none"> - Gune publikoetan grabazioak egiteko araudia (portua eta gaztelugatxe bereiziz) - Aholkularitza juridikoaren kontratuan aurkeztutako eskaintzen eginbidea egin (pendiente informatikoekin) - Berdintasun planaren iragarkia prestatuta. - Katastroko fitxa atera Guretxe etxeeri buruz eta planoak eskatu delineanteari (fitxa aterata, planoak pendiente) - Jabetza Erregistroan lagapena inskribatzeko ziurtagiriaren proposamena eginda. - Txurrotegiaren baldintza agiriak moldatu kontzesiorako.
DATA: 2020-09-23	<ul style="list-style-type: none"> - Gune publikoetan grabazioak egiteko araudia (portua eta gaztelugatxe bereiziz) - Aholkularitza juridikoaren kontratuan aurkeztutako eskaintzen eginbidea egin (pendiente informatikoekin) - Txurrotegiaren baldintza agiriak moldatu kontzesiorako. - Delineatzailearekin hitz egin planoak eginda. - Garbiketa zerbitzu kontratuaren plegu teknikoak bateratuta.
DATA: 2020-09-24	<ul style="list-style-type: none"> - Gune publikoetan grabazioak egiteko araudia (portua eta gaztelugatxe bereiziz). - Aholkularitza juridikoaren kontratuan aurkeztutako eskaintzen eginbidea egin (pendiente informatikoekin). - Txurrotegiaren baldintza agiriak moldatu kontzesiorako. - Barne eta kanpo komunikazioaren kontratuaren luzapenaren txostena eta proposamena egin. - Garbiketa zerbitzu kontratuaren baldintza agiriak sinatu eta txostena egin. - Hitzarmena sinadurara pasatu.
DATA: 2020-09-28	<ul style="list-style-type: none"> - Barne eta kanpo komunikazioaren kontratuaren luzapenaren txostena eta proposamena egin. - Garbiketa zerbitzu kontratuaren baldintza agiriak sinatu, txostena eginda eta baita proposamena. - Hitzarmena sinadurara pasatu. - Aire girotuaren kontratuaren inguruko txostena. - Berdintasun planaren kontratuaren erabaki proposamena eginda.
DATA: 2020-09-29	<ul style="list-style-type: none"> - Barne eta kanpo komunikazioaren kontratuaren luzapenaren txostena eta proposamena (Eginda). - Hitzarmena sinadurara pasatu. - Txurrotegiaren pleguak moldatu. - Bide publikoetan grabazioak egiteko ordenantza.
DATA: 2020-09-30	<ul style="list-style-type: none"> - Txurrotegiaren pleguak moldatu - Bide publikoetan grabazioak egiteko ordenantza - Lokalen erabilera aztertu



DATA: 2020-10-01	<ul style="list-style-type: none"> - Itxas-gane futbol zelaiaren erabil baimena aztertu - Aholkularitza juridikoaren kontratuaren eginbidea eta hutsik deklaratzearen proposamena.
DATA: 2020-10-02	<ul style="list-style-type: none"> - B1631 errepideko sarbidearen obra argitu - Txurrotegiaren pleguak moldatu - Bide publikoetan grabazioak egiteko ordenantza. - Lokalen erabilera aztertu - Itxas-gane futbol zelaiaren erabil baimena aztertu - Aholkularitza juridikoaren kontratuaren eginbidea eta hutsik deklaratzearen proposamena.
DATA: 2020-10-05	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzendu justifikazio memoria eta pleguak - Prozedura negoziatuaren txostena
DATA: 2020-10-06	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza juridikoaren erabaki proposamena egin: hutsik deklaratuta - Txurrotegiaren pleguak moldatu - Helburuen jarraipena - On-line kurtsoa 10:00etatik 12:00etara - Saitetako kontratazio arloko zalantzak argitu - BI-631 sarbideari buruzko ikuspuntua helarazi BFAri
DATA: 2020-10-07	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza juridikoaren erabaki proposamena bukatu: hutsik deklaraturata. - Delineatzaileari eskatu Guretxeko plano eta erregistrora bidali ziurtagiriarekin batera. - COVID dela eta kontratuetan sartzeko klausulak aztertuta: kulturatik bidalitako zalantza. - 2020ko irailaren 25ean aldatutako diru-laguntzen deialdia prestatu
DATA: 2020-10-08	<ul style="list-style-type: none"> - Futbol zelaiaren erabilera baimena aztertu - Pleguak prestatzen hasi lote bakarreko lizitaziorako: aholkularitza juridikoa - Egiatzatu ea bidali den BAOra Osoko Bilkuraren kontratazio mahaia - OARCen alta eman EGINDA - OARCera bidali kontratazio errekurso berezia EGINDA - Kontratazio organoaren txostena egin errekurso bereziari buruz OARCera bidaltzeko EGINDA - 2020ko irailaren 25ean aldatutako diru-laguntzen deialdia prestatu - Pleguak prestatzen hasi lote bakarreko lizitaziorako: aholkularitza juridikoa
DATA: 2020-10-09	<ul style="list-style-type: none"> - Emergentsia egoeran beharrezko hornidurak bideratu behar badira bideratu (maskarak, eskularruak, garbiketa produktuak...). Hitz egin erosketak, arrisku teknikariarekin eta zerbitzu teknikariarekin. - 2020ko irailaren 25ean aldatutako diru-laguntzen deialdia prestatu - Pleguak prestatzen hasi lote bakarreko lizitaziorako: aholkularitza juridikoa
DATA: 2020-10-13	<ul style="list-style-type: none"> - Emergentsia egoeran beharrezko hornidurak bideratu behar badira bideratu (maskarak, eskularruak, garbiketa produktuak...). Hitz egin erosketak, arrisku teknikariarekin eta zerbitzu teknikariarekin. - 2020ko irailaren 25ean aldatutako diru-laguntzen deialdia prestatu. - Pleguak prestatzen hasi lote bakarreko lizitaziorako: aholkularitza juridikoa - Kontratazioko jakinarazpenak egiteko irizpidea aldatu (Swal/plataforma). - Kirol Patronatuko zigor espedientea gainbegiratu - Diru-laguntzen txosten juridikoa (urdaibai arraun elkatea).
DATA: 2020-10-14	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazioko jakinarazpenak egiteko irizpidea aldatu (Swal/plataforma).



DATA: 2020-10-15	<ul style="list-style-type: none"> - Emergentziazko kontratuen inguruko irizpidea aldatu (zentralizatu). - Kirol Patronatuko zigor espedientea gainbegiratu. - Diru-laguntzen txosten juridikoa (urdaibai arraun elkatea). - Kurtso online: 10:00-12:00
DATA: 2020-10-16	<ul style="list-style-type: none"> - Emergentziazko kontratua. Arrisku Saila. - Plegu administratiboak: etilometroa. - Falta den txostena bukatu: Futbol taldearentzat diru-laguntza. - Garbiketa zerbitzua: pleguetan aldatu organo eskuduna
DATA: 2020-10-19	<ul style="list-style-type: none"> - Emergentziazko kontratua. Arrisku Saila - Kontratazio arloko errekurtsio bereziaren txostena egin eta OARC-era bidali - Garbiketa zerbitzua: pleguetan aldatu organo eskuduna - Azokan mahaiak ipintzeko baimena noren eskumena den begiratu - Berdintasun plana TGBra pasatu
DATA: 2020-10-20	<ul style="list-style-type: none"> - Emergentziazko kontratua. Arrisku Saila - Azokan mahaiak ipintzeko baimena noren eskumena den begiratu - OARCera bidali espedientea berriro. - Gasoleo C kontratua begiratu: luzapena BFA - Luzapenak REVASCONen sartu - RC pendienteak eskatu - Kontratazioko ereduaren aldaketak TGBtik pasatu
DATA: 2020-10-21	<ul style="list-style-type: none"> - Luzapenak eta hutsegiteak perfilean argitaratu - Aholkularitza juridikoaren kontratua: pleguak bukatu (lote bakarra) - Kontratazio ereduaren aldaketak TGBtik pasatu - Justifikazio memoria bukatu
DATA: 2020-10-22	<ul style="list-style-type: none"> - Costas-eko txostena eginda. - Aholkularitza juridikoaren kontratua: pleguak bukatu (lote bakarra) - Kontratazio ereduaren aldaketak TGBtik pasatu - Justifikazio memoria bukatu
DATA: 2020-10-23	<ul style="list-style-type: none"> - Aholkularitza juridikoaren kontratua: pleguak bukatu (lote bakarra) - Justifikazio memoria bukatu
DATA: 2020-10-26	<ul style="list-style-type: none"> - Hilerriko kanpoaldean postuak ipintzeko baimenak tramitatu - Kontratuaren iragarkia bukatu - Aholkularitza juridikoaren kontratua: pleguak bukatu (lote bakarra) - Justifikazio memoria bukatu
DATA: 2020-10-26	<ul style="list-style-type: none"> - Domu Santu eguneko baimenak bukatu EGINDA - Aholkularitza juridikoaren kontratua: pleguak bukatu (lote bakarra) - Justifikazio memoria bukatu - Berdintasun planaren iragarkia bukatu - Manparak erosteko kontratu txikia
DATA: 2020-11-02	<ul style="list-style-type: none"> - Jabari publikoko baimenen etetea sinadura pasatu - Portatilen hornidura: emergentziazko kontratua - Berdintasun plana: Iragarkia, gonbidapenak eta argitarapena - Kontratazio ereduak TGBn onartzeko erabaki proposamena - Txosten juridikoa: kontzesioa erabilera pribatiboa (txurrotegia-kioskoa) - Kanpo eta barne komunikazio kontratuaren luzapena TGBra pasatu
DATA: 2020-11-03	<ul style="list-style-type: none"> - Kontratazio ereduak TGBn onartzeko erabaki proposamena - Txosten juridikoa: kontzesioa erabilera pribatiboa (txurrotegia-kioskoa) - Fitxak bete



DATA: 2020-11-04	<ul style="list-style-type: none"> - Birjartze errekurtsua: errekerimendua prestatu - Txosten juridikoa: kontzesioa erabilera pribatiboa (txurrotegia-kioskoa) - Erakunde batzarra: 13:00etan - Jabetza erregistroan inskribatzeko ondasunen zerrenda: aztertu - Garbiketa zerbitzua: RC berria eskatu eta pleguak aldatu. Proposamena aldatu
DATA: 2020-11-05	<ul style="list-style-type: none"> - Txosten juridikoa: kontzesioa erabilera pribatiboa (txurrotegia-kioskoa) - Iragarkia prestatu - Garbiketa zerbitzua: RC berria eskatu eta pleguak aldatu. Proposamena aldatu - Jabetza erregistroan ondasunak inskribatzeko ereduak prestatu
DATA: 2020-11-06	<ul style="list-style-type: none"> - Txosten juridikoa: kontzesioa erabilera pribatiboa (txurrotegia-kioskoa) - Iragarkia prestatu - Garbiketa zerbitzua: RC berria eskatu eta pleguak aldatu. Proposamena aldatu - Jabetza Erregistroan inskribatzeko ondasunak bideratu
DATA: 2020-11-09	<ul style="list-style-type: none"> - Erabaki proposamena: garbiketa zerbitzua - Erabaki proposamena: kontzesioa - Jabetza Erregistroan inskribatzeko ondasunak bideratu - Futbol zelaia: espedientea eskatu
DATA: 2020-11-10	<ul style="list-style-type: none"> - Erabaki proposamena: kontzesioa - Jabetza Erregistroan inskribatzeko ondasunak bideratu - Futbol zelaia: espedientea eskatu - Telekomunikazio zerbitzua: kontratua esleitzeko prozedura jarraitu. Errekerimendua - Udal ibilgailuen mantentze zerbitzua: tramitazioa hasi - Sastar batze kamioiaren alokairu kontratua bertan behera uzteko irtenbideak bilatu - -EUDELEko kontsulta jabari publikoari buruz
DATA: 2020-11-11	<ul style="list-style-type: none"> - Erabaki proposamena: kontzesioa - Futbol zelaia: espedientea eskatu - Udal ibilgailuen mantentze zerbitzua: pleguak - Birjartze errekurtsua: aholkularitza juridikoa
DATA: 2020-11-12	<ul style="list-style-type: none"> - Futbol zelaia: espedientea eskatu - Udal ibilgailuen mantentze zerbitzua: pleguak - Birjartze errekurtsua: aholkularitza juridikoa
DATA: 2020-11-13	<ul style="list-style-type: none"> - Udal ibilgailuen mantentze zerbitzua: pleguak - Birjartze errekurtsua: aholkularitza juridikoa - BAOrak bidali abokazioa - Jabari publikoaren kontzesioa: txurrotegia-kioskoak: Planoak eskatu - Sastar kamioiak: espedientea prestatu bertan behera uzteko - Alfonbrak hornitzeko kontratu txikia - Kontratazio lan-taldearen deialdia prestatu
DATA: 2020-11-20	Baimen eguna
DATA: 2020-11-23	<ul style="list-style-type: none"> - Alfonbrak hornitzeko kontratu txikia: bideratuta. - Berdintasun plana: Bidalita errekerimendua. - Sastar kamioien kontratua bertan behera uztea: Txosten juridikoa eta erabaki proposamena eginda.



DATA: 2020-11-24	<ul style="list-style-type: none"> - Udal ibilgailuen mantentze zerbitzua: zuzendu beharrekoak bidalita. - Irakurle txokoa kontratua: pleguak gainbegiratuta. - Itxas gane futbol zelaia: emakida espedientearen hasiera (probidentzia) - Baleontzia kontratua: Kaudimena begiratuta. - Kultura arloko kontratuak: zalantzak argituta.
DATA: 2020-11-25	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun plana: akta eta balorazio txostena - Kasino eraikineko lokalak: pleguak prestatzen hasi - Kontratazio ereduak: pleguak
DATA: 2020-11-26	<ul style="list-style-type: none"> - Jabetza Erregistroan inskribatzeko ondasunen dokumentazioa gainbegiratu. - Kasino eraikineko lokalak: pleguak prestatzen hasi - Kontratazio ereduak: pleguak - Txurrotegiaren pleguak gainbegiratuta.
DATA: 2020-11-27	Baimen eguna
DATA: 2020-11-30	<ul style="list-style-type: none"> - Telekomunikazio zerbitzu kontrataren esleipen erabakia prestatuta. - Berdintasun plana: Akta eginda eta balorazio txostena. - Kontratazio ereduak: pleguak - Itxas gane futbol zelaiaren hitzarmena gainbegiratuta.
DATA: 2020-12-01	<ul style="list-style-type: none"> - Asteleheneko zereginen taula eguneratu - Berdintasun plana: erabaki proposamena negoziazioa hasita. - 12:00etan datuen babeserako kurtsoa - Akats materialak zuzentzeko erabaki proposamena eginda. - Garbiketa zerbitzu kontratuaren erabakia prestatuta eta TGBra pasatuta.
DATA: 2020-12-02	<ul style="list-style-type: none"> - Ibilgailuen kontratua: txosten juridikoa - Telekomunikazio zerbitzua: kontratua prestatu - Justifikazio txostena: kontratu txikia eginda. - Hilabete gastronomikoaren kontratua bertan behera uztea: txosten juridikoa - Berdintasun plana: proposamen tekniko eta ekonomikoa aztertzearen akta eginda.
DATA: 2020-12-03	Baimen eguna
DATA: 2020-12-04	Opor eguna
DATA: 2020-12-07	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun plana: Negoziazioa hasi enpresarekin (akta bidali). - Ibilgailuen kontratua: pleguak amaitu eta eranskinak gehitu (precios unitarios) - Txosten juridikoa bukatu - 9:00etan batzarra Euskara Teknikariarekin eta itzultzailearekin: pleguen itzulpena eta lan karga dela eta - Gasoleo C kontratua: baiezkora erantzuna eman BFA.
DATA: 2020-12-09	Opor eguna



Tokiko Gobernu Batzarra

Bermeoko Udaleko Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikariak, jarraian zehazten den gaiari buruz egin du hurrengo

ERABAKI PROPOSAMENA**Xedea**

Lamerako kioskoen eta Erretenen txurrotegia ipintzeko jabari publikoaren emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea

Aurrekariak

Lehenengoa: Bermeoko Udala Lameran dauden 1. eta 2. kioskoen jabe da (Katastroko zenbaki finkoa: N9812351X eta N9812352W, hurrenez hurren), baita txurrotegia jarrita dagoen lurzoruaren jabea ere. Ondasun horiek jabari publikoko ondasunak dira, Udalaren ondasunen inbentarioan halakotzat adieraziak.

Bigarrena: Lamerako 1. zenbakidun kioskoaren eta Erretenen ipinitako txurrotegiaren emakidak iraungita daude, eta Lamerako 2. zenbakidun kioskoa hutsik dago une honetan. Hori dela eta, ikusirik higiezin horiek erabiltzeko eta ustiatzeko beharra eta egokitasuna dagoela, udal zerbitzuek administrazio emakida arautuko duten agiriak prestatu dituzte.

Hirugarrena: 2020ko otsailaren 17an, Errenta Teknikariaren txostena eman zen, ordaindu beharreko kanonari buruz.

Laugarrena: Halaber, espedientean Idazkaritzako AOTren txosten juridikoa dago, 2020ko azaroaren 9koa.

Argudioak

Lehenengoa: Emakidaren xede diren kioskoak jabari publikoko ondasunak dira, zerbitzu publikoari atxikiak, ekainaren 23ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 4. artikuluekin bat etorritik. Lamerako erretena, ordea, erabilera publikoari atxikitako jabari publikoko ondasuntzat hartzen da, aipatutako Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako moduan.

Bigarrena: Proposatutako okupazio-izaera eta -epea kontuan hartuta, jabari publikoko erabilera pribatiboa da, eta, beraz, dagokion emakida eman beharko da, 33/2003 Legearen 86. eta 93. artikuluetan eta 1372/1986 Errege Dekretuaren 78.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40005520900R5C6U6U1R9I6

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 18/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/11/2020 11:04:02

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0061

Data: 14/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Hirugarrena: 33/2003 Legearen 93.1 artikulua ezartzen duenez, jabari publikoko ondasunen gaineko emakidak lehiaketa bidez emango dira.

Laugarrena: Kontuan izanda negozio juridiko hori dagokion herri-jabariko emakida egilestearen mende dagoela eta bere legeria propioa izango duela, hori izango da administrazio publikoen ondasunak arautzen dituen, eta, beraz, Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen eremutik kanpo geratuko da, nahiz eta, lege-hutsuneen kasuan, kontratu-araudi publikoaren printzipioak aplikatu behar zaizkion.

Bosgarrena: Espediente honen xede diren emakidak ez ditu Udalak finantzatzeko, aitzitik, kontzesiodunek ordaindu beharreko urteko kanonaren mende daude.

Seigarrena: Emakiden oinarriak eta esleipena onartzeko ahalmenari dagokionez, Sektore Publikoen Kontratuak arautzen duen 9/2017 Legearen II. Xedapen Gehigarriaren 9. atalaren arabera, ahalmena alkateari dagokio, oinarritzko aurrekontua ez baita egungo udal aurrekontuko baliabide arrunten % 10 baino handiagoa. Hala ere, 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Proposamena

Goian aipatutakoa kontuan izanda, honako proposamena egiten dut:

LEHENENGOA: Lamerako 1. eta 2. zenbakidun kioskoen eta Erretenen txurrotegia ipintzeko jabari publikoaren emakidak esleitzeko deialdiaren oinarriak onartzea.

BIGARRENA: Jabari publikoaren gaineko emakidak esleitzeko deia egitea. Horretarako, dagokion iragarkia argitaratu da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, udalaren webgunean eta iragarki-taulan. Eskaintzak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

HIRUGARRENA: Iragarkia argitaratu baino lehen, gaur egun Lamerako 1. zenbakidun kioskoaren eta Erreteneko txurrotegiaren emakidak dituzten pertsonen erabaki honen berri ematea.

LAUGARRENA: Erabaki hau Idazkaritza sailari, Ekonomia sailari eta ATBri helaraztea, jakinaren gainean egon daitezen dagozkion ondorioetarako.

BOSGARRENA: Hurrengo Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Orri oinean, sinadura eta data.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40005520900R5C6U6U1R9I6

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 18/11/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 18/11/2020 11:04:02

EXPEDIENTE ::
2020IDA_ERA_0061
Data: 14/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Bermeoko Udaleko Idazkaritzako Administrazio Orokorreko Teknikariak, jarrian zehazten den gaiari buruz egin du hurrengo

ERABAKI PROPOSAMENA

Xedea

Telekomunikazio zerbitzuen esparru-akordioaren ondoriozko kontratuaren esleipena

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko otsailaren 12an, Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentraletik telekomunikazio zerbitzuen esparru akordiora atxikitzeko dokumentazioa jaso zen.

Bigarrena: 2020ko otsailaren 18ko 484 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, aipatutako esparru akordiora atxikitzea erabaki zen.

Hirugarrena: Bizkaiko Foru Aldundiaren 2020ko otsailaren 25eko erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, foru-erakundeen, toki-erakundeen eta udalen telekomunikazio-zerbitzuen kontratazio zentralizaturako esparru-akordioa egiteko prozedura hasia erabaki zen.

Laugarrena: Esparru-akordioa 3 lotek osatzen dute, eta Bermeoko Udala 2. lotearen barruan dago, "udalentsako eta bestelako erakundeentzako telekomunikazio-zerbitzu bateratuak" izenekoak.

Bosgarrena: 2020ko ekainaren 3an Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala bildu zen, Kontratazio Mahai gisa, aurkeztutako enpresen A gutun-azaleko dokumentazioa ireki eta kalifikatzeko. Hona hemen aurkeztutako enpresak:

- VODAFONE ESPAÑA SAU
- TDE-TME aldi baterako enpresa-elkartea, TELEFONICA DE ESPAÑA SAU eta TELEFONICA MOVILES ESPAÑA enpresek osatua
- EUSKALTEL
- ORANGE ESPAGNE SAU

Seigarrena: 2020ko ekainaren 5ean, Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala bildu zen, eta lizitaziorako onartutako enpresak zehaztu ziren:

- VODAFONE ESPAÑA SAU (1 lotea)
- TDE-TME aldi baterako enpresa-elkartea, TELEFONICA DE ESPAÑA SAU eta TELEFONICA MOVILES ESPAÑA enpresek osatua (1, 2 eta 3 lotek)
- EUSKALTEL (1, 2 eta 3 lotek)
- ORANGE ESPAGNE SAU (1 lotea)



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E4000573A900E2X2T8S5K0A6

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 07/12/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/12/2020 12:29:23

EXPEDIENTE ::
2020KON_ZEN_0003
Data: 17/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Era berean, onartutako lizitatzailen automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko eskaintzak ireki ziren, eta dagokion teknikariari igortzea erabaki zen, eskaintzak ezarritako hautaketa-irizpideak ebaluatzeko.

Zazpigarrena: Balorazio txostena egin ondoren, 2020ko abuztuaren 27an, Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentrala bildu zen ekitaldi publikoan, automatikoki kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko eskaintzei esleitutako ponderazioa ezagutarazteko, eta ORANGE ESPAGNE SAU baztertua erabaki zen.

Zortzigarrena: Ondoren, automatikoki kuantifikatzen diren irizpideei buruzko balorazio txostena egin zen, baldintza agiri orri zehatzen karatulan ezarritako hautapen-irizpideen arabera.

Bederatzigarrena: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 145, 146 eta 150. artikuluekin bat etorritik, Bizkaiko Foru Kontratazioko Zentralak, aipatutako txostenekin bat etorritik eta kontratazio-organoak zehaztutako balorazio-irizpideak kontuan hartuta, eskaintzak baloratu zituen, eta proposamenak honela sailkatu zituen:

2. lotea: Udal eta bestelako erakundeentzako telekomunikazio zerbitzu bateratuak

	AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK	AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK	GUZTIRA
EUSKALTEL	32,5000	56,0488	88,5488
TELEFONICA	36,0000	29,6433	65,6433

Hamargarrena: Emaizta horietan oinarrituta, Bizkaiko Foru Aldundiak 2. lotea EUSKALTEL, SARI esleitzea proposatu du, esleipen-irizpideen arabera puntuatutako eskaintzarik onena lortu duen lizitatzailera baita.

Hamaikagarrena: 2020ko azaroaren 17an, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Euskaltel SA merkataritza sozietatearen artean, esparru-akordioaren kontratua formalizatu zen.

Hamabigarrena: Aipatutako enpresari dokumentazioa eta bermea eskatu ondoren, horiek aurkeztu egin dira.

Hamahirugarrena: Kontsignazio nahikoa dagoela adierazten duen RC dokumentua espedientera erantsi da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.

Kodea:

07E4000573A900E2X2T8S5K0A6

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 07/12/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/12/2020
12:29:23

EXPEDIENTE ::
2020KON_ZEN_0003

Data: 17/02/2020

Lekua: Bermeo

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Argudioak

Lehenengoa: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 219. artikulua arabera, sektore publikoko kontratazio organo batek edo gehiagok esparru-akordioak egin ahal izango dituzte enpresa batekin edo gehiagorekin, epe jakin batean esleitu nahi diren kontratuek bete beharreko baldintzak finkatzeko.

Bigarrena: Halaber, lege horren 221. artikuluan esparru-akordio batean oinarritutako kontratuak esleitzeko prozedura arautzen da.

Hirugarrena: Sektore Publikoko Kontratu Legearen Bigarren Xedapen Gehigarrian jasotakoaren arabera, ahalmena alkateari dagokio. Hala ere, 2019ko ekainaren 21eko 1479 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, ahalmena Tokiko Gobernu Batzarrarengan delegatu zen.

Proposamena

Goian aipatutakoa kontuan izanda, honakoa proposatzen dut:

LEHENENGOA: Telekomunikazio-zerbitzuen esparru-akordioaren ondoriozko kontratua EUSKALTEL S.A. enpresari esleitzea (IFK: A48766695), esparru-akordioaren ondorioetan ezarritako moduan.

BIGARRENA: Kontratu honi egotz dakioken gastua baimentzea eta xedatzea, 136.017,50 eurotan (BEZa barne), aurrekontuko 00300-92000-222.01.00 kontu-sailaren kargura.

HIRUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Zerbitzu saileko Udal Teknikaria izendatzea, kontratuaren jarraipenaren eta ohiko gauzatzearen arduradun legez.

LAUGARRENA: Kontratu honen formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 154. artikuluan xedatutakoarekin bat.

BOSGARRENA: Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Erregistroari (REVASCON) jakinaraztea esleitutako kontratuaren oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 346.3 artikuluari jarraiki.

SEIGARRENA: Erabaki hau esleipendunari, gainontzeko lizitatzzaileei eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kontratazio Zentralari jakinaraztea.

ZAZPIGARRENA: Hurrengoko Osoko Bilkuran erabaki honen berri ematea.

Orri oinean, sinadura eta data.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E4000573A900E2X2T8S5K0A6

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 07/12/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 07/12/2020 12:29:23

EXPEDIENTE ::
2020KON_ZEN_0003
Data: 17/02/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



BATZAR AKTA 8/2020

Gaia:	Kontratazio lan-taldea
Helburua:	Bermeoko Udaleko kontratazioaren espedienteak eraginkorragoak izatea
Data:	2020/08/06
Hasiera – bukaera ordua:	12:00-13:25
Parte hartzaileak:	Naiara Anasagasti (Antolakuntzako ADT), Edurne Uriarte (Kontu-hartzailea) eta Nerca López (Idazkaritzako ADT eta lan-taldeko koordinatzailea).
Tratatutako gaiak/Ondorioak:	

Gaiak:	Ondorioak:
1. Aurreko aktaren onarpena	1. Akta onetsi da.
2. Aurreko batzarreko egitekoen jarraipena	2. - Kutxa aurrerapenen instrukzioa onartu eta zabalkundea egin: Momentuz geldituta dago alkatearen aginduz. Planteatzen da ea zer nolako irtenbideak egon ahal diren egoera desblokeatzeko. Besta alde batetik, aditzera ematen da azertu beharra dagoela on-line ordainketak egiteko prozedura. - Kontratazio prozeduraren zirriborroa: Eginda dago. - Kontratazio zentraleko ereduak moldatu (hasiera eta justifikazio txostenak): Eginda dago.
3. Kontratazio-prozeduraren zirriborroa aurkeztea	3. Adosten da kontratazio zentralizatuaren prozedura sailburuei bakarrik bidaltzea.
4. Egin beharreko plegu eta eredu aldaketak	4. Prestatuko eredu berriak ATB-ri bidaltzea adosten da Swalen sartzeko.
5. Prozedurak efizienteagoak izateko proposamenak aztertzea	5. Proposatzen da batzar bakoitzean taldekide batek kontratazio arloan aholkularitza eta kontrol organoek emandako ebazpenen berri ematea, eta baita sententziak ere. Bestalde, bilerak hileroko egitea ere proposatzen da.
6. Sail ezberdinetako arazoak bideratzeko proposamenak	6. Ez da proposamenik aurkeztu.



Hurrengo balzarra: 2020-09-24 12:00etan.

Bileraren helburuaren betetze maila:

% 100

Deskribapena	Egitekoak:		
	Epaia	Erantzulea	Eginda
Kutxa aurragapenaren instrukzioa akordatu eta zehaztu	2020-09-24	Eduardo Izaskun	
Kontratazio prozedura zehaztu eta zabaldu	2020-09-24	Nerea	Eginda
Kontratazio zentralizaturako ereduak moldatu (hasiera txostenak eta justifikazio memoriak)	2020-09-24	Nerea	Eginda
Kontratazioa zentralizatzeko proposamenak aztertu eta iradokizunak egin	2020-09-24	Denok	
Data: 2020/09/21	Akta hartzailea: Nerea López Angulo	Or. 2/2	



KONTRATAZIO PUBLIKOKO LIZITAZIO PROZEDUREN FORMULAK

Lizitazio publikoaren esparruan, ugariak dira eskaintza ekonomikoak baloratzeko erabilitako formulei buruz administrazio-auzitegiek emandako ebazpen eta erabakiak. Era berean, gai horretan eskumena duten erakundeek (Europako Batzordeak, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordeak, Kanpo Kontroleko Organoek, Merkatu eta Lehiaren Batzorde Nazionalak eta abarrek) hainbat txosten, praktika egokien gida, irizpenak eta abar dituzte. Hala eta guztiz ere, agerikoa da prezioak balioesteko erabil daitezkeen formulei buruz dagoen eztabaida, eta horrek nahasmen izugarria sortzen du bai lizitatuzailearentzat bai kontratazioa kudeatzen duenarentzat.

Egoera horrek garrantzi handia du, eta, horregatik, komenigarria litzateke, prozesuaren funtsezko zati horretan, aplikatu beharreko irizpideak gutxienez harmonizatzea. Izan ere, kontratazio publikoko araudiaren mende dagoen edozein erakunderentzat, eredu estandar bat onartzeak balio erantsi handia ekarriko luke. Horrela, eskaintza ekonomikoei puntuak bidegabe esleitzeagatik erreklamazioak egiteko aukera murriztuko litzateke, eta, ondorioz, baita dagozkien errekurtsioak ere.

Prezioaren puntuazio-formulei buruz aurkitutako erreferentzia juridikoak aztertu ondoren, printzipio hauek atera dira:

- Erabili beharreko formulak, eskaintzek gehienezko lizitazio-prezioarekiko duten distantziaren arabera puntuatu behar du. Hau da, bajaren zenbatekoa lizitazioaren gehieneko prezioari dagokionez puntuatu behar da, ez eskaintzarik onenari, ez batez bestekoari jasotako eskaintzak.
- Erabili beharreko formulak hauxe bete behar du: eskaintza ekonomikorik baxuena izan behar du puntu-kopuru handiena lortzen duena (ez du zertan maximoa izan behar), eta lizitazioaren gehienezko prezioa murrizten ez duenak zero puntu lortu behar ditu.
- Formulak gai izan behar du proposamen ekonomiko guztiak handienetik txikienera ordenatzeko, prezio desberdinak proposatzen dituzten eskaintzek puntuazio bera izan ez dezaten eta, betiere, prezio baxuagoak puntuazio hobea izan dezan.
- Formulek ez dute asetasun-atalaserik izan behar, hau da, balio horretatik abiatuta eskaintza guztiak puntuazio bera edo puntuazio-diferentzia hutsalak izatea.
- Formulek egindako deskontuarekiko puntuak proportzionalki banatu behar dituzte.


Printzipio horietatik abiatuta, erabili beharreko formulek funtzio gisa bete behar dituzten baldintza matematikoak planteatzen dira testu honetan. Hala, hurrengo puntuetan erabilitako formula nagusiak aztertuko dira:



1. Formula hiperbolikoa edo alderantzizko proportzionala

Hori da eskaintza ekonomikoak baloratzeko gehien erabiltzen den formuletakoa bat, eta adierazpen grafiko eta matematiko hau du:

$$P_i = P_{max} \times \left(\frac{\text{Oferta económica más baja}}{\text{Oferta económica}} \right)$$



Formula horrek ez ditu betetzen arestian aipatutako baldintzetako zenbait irizpide:

- Formula ez da lineala, hiperbolikoa baizik, eta, beraz, puntuen banaketa ez da proportzionala.
- Eskaintzak ez dira baloratzen gehieneko prezioaren gaineko bajari dagokionez, jasotako eskaintzarik onenari dagokionez baizik.
- Ez zaio zero punturik ematen lizitazioaren gehieneko prezioari deskonturik egiten ez duen eskaintzari.
- Ezin da banatu aurreikusitako puntuazio-zerrenda osoa.

Formula hiperbolikoaren ezaugarri horien ondorioz, nabarmen murrizten da puntuazio-zerrenda prezioari esleitutako gehieneko puntuazioaren aldean, eta horrek murriztu




egiten du prezioaren irizpideak gainerako irizpideen aldean duen pisu erreala. Gainera, erabat deusez deklaratzeko arriskua dago.

Horregatik, ez da gomendatzen udalaren lizitazio prozeduretan formula honen erabilera. Formula bat ez-baliozkotzat hartzeak ez du esan nahi formula hori legez kanpoko denik; baina, oro har, arrisku nabaria edo esanguratsua dago zuzenbidearekin bat ez datorrela adierazteko (segurtasun juridiko eskasa) eta/edo eraginkortasun-printzipioa beteko ez duelaren bermatzen ez duen arriskua.

2. Formula lineal proportzional zuzena

Formula linealak eskaintzarik onenari ematen dizkio puntu guztiak, eta zero puntu, lizitazioaren gehieneko prezioari dagokionez deskonturik egiten ez duen eskaintzari. Puntuak bitarteko eskaintzekiko linealki proportzionalki esleituko dira.

Adierazpen matematiko hau du:



Formula horrek erreferentzia juridikoetatik ateratako betebeharrak gehienak betetzen ditu:

- Lineala denez, proportzionalki banatzen ditu puntuak.
- Eskaintzarik baxuenari ematen dio puntuaziorik handiena.
- Lizitazioaren gehieneko prezioa baino txikiagoa ez den eskaintzari zero puntu ematen dizkio.



Eredu horrek segurtasun juridikoa du; izan ere, funtzio proportzionala da arrisku txikiena duen formuletakoa bat. Hortaz, eredu baliozkotzat jotzen da, funtzio lineal batean oinarrituta baitago, baina proportzionaltasuna kontrolatzeko gai izan behar du, prezioaren irizpidea baloratzeko.

Hala ere, formula horrek ahultasun bat du, agerian jarri dena hainbat kontratazio-espeditetan: bajak txikiak direnean, esleitutako puntuazio-zerrenda osoa beti banatzeak eragiten du alde txikiek puntuazio-diferentzia handiak lortzea, eta hori handiegia da.

Ondoren, kasu praktiko batzuen bidez ikusiko dugu aurretik azaldutakoa. Hala, hasierako gehienezko prezioa 1.000.000 eurokoa da, finko mantentzen da eta 4 eskaintza aurkeztu dira (kasu guztietan prezioari eusten diote):

a) 1. Kasua: Gehienezko baja % 20koa da

Eskaintako prezioa	Prezio-diferentzia	Eskaintako baja % Bi	Bariazioa % Bmax - % Bi	Puntuazioa
850.000,00	-	15,00 %	5,00 %	37,50
840.000,00	10.000,00	16,00 %	4,00 %	40,00
825.000,00	15.000,00	17,50 %	2,50 %	43,75
800.000,00	25.000,00	20,00 %	0,00 %	50,00

% Gehienezko baja	20 %	Gehienezko puntuazioa	50
-------------------	------	-----------------------	----

b) 2. Kasua: Gehienezko baja % 15ekoa da

Eskaintako prezioa	Prezio-diferentzia	Eskaintako baja % Bi	Bariazioa % Bmax - % Bi	Puntuazioa
900.000,00	-	10,00 %	5,00 %	33,33
890.000,00	10.000,00	11,00 %	4,00 %	36,66
875.000,00	15.000,00	12,50 %	2,5 %	41,66
850.000,00	25.000,00	15,00%	0,00 %	50,00

% Gehienezko baja	15 %	Gehienezko puntuazioa	50
-------------------	------	-----------------------	----

c) 3. Kasua: Gehienezko baja % 10eko da

Eskaintako prezioa	Prezio-diferentzia	Eskaintako baja % Bi	Bariazioa % Bmax - % Bi	Puntuazioa
950.000,00	-	5,00 %	5,00 %	25,50
940.000,00	10.000,00	6,00 %	4,00 %	30,00



925.000,00	15.000,00	7,50 %	2,50 %	37,50
900.000,00	25.000,00	10,00 %	0,00 %	50,00

% Gehienezko baja	10%	Gehienezko puntuazioa	50
-------------------	-----	-----------------------	----

d) 4. Kasua: Gehienezko baja % 5koa da


Eskaintako prezioa	Prezio-diferentzia	Eskaintako baja % Bi	Bariazioa % Bmax - % Bi	Puntuazioa
1.000.000,00	-	0,00 %	5,00 %	0,00
990.000,00	10.000,00	1,00 %	4,00 %	10,00
975.000,00	15.000,00	2,50 %	2,50 %	25,00
950.000,00	25.000,00	5,00 %	0,00 %	50,00

% Gehienezko baja	5 %	Gehienezko puntuazioa	50
-------------------	-----	-----------------------	----

Ikus daitekeenez, zenbateko berean bereizten diren bi eskaintzaren artean ematen den puntuazio-diferentzia askoz handiagoa da gehienezko baja zenbat eta txikiagoa izan.

Hurrengo, irudikapen grafikoari erreparatuz gero, ikus daiteke funtzio horretarako proportzionaltasun-erlazioa (K) handitu egiten dela gehienezko baja zenbat eta txikiagoa denean, batez ere % 10etik beherako gehienezko baja-balioentzat. Horregatik hautematen da "proportziorik eza" kasu horietan, eta, adibidez, "formula proportzional" horren aldaera gisa, "baja esanguratsu" kontzeptua erabiltzen da efektu hori % 2 - % 5 bitarteko baja-balioetan laminatzeko ("formula proportzional zuzendua" erabiliz).

Evolución relación de proporcionalidad (K)



3. Formula lineal/proportzional zuzendua

Aurreko ataletan esandakoa kontuan hartuta, formula “lineal/proportzional zuzendua” erabiltzea proposatzen da. Bere erabilerarako, hurrengo pausuak jarraituko dira:

- Beherapenik handiena lizitazio prezioaren % 5 baino handiagoa bada, puntu guztiak baja portzentajerik handienari emanen zaizkio, eta gainerako eskaintzei, bajaren portzentajearen proportzioan, formula honen arabera:

$$P_i = 50 \times (B_i/B_m)$$

- Beherapenik handiena ez bada eskaintza bakoitzaren % 5 baino handiagoa, baja-portzentajearekiko proportzioan aterako dira puntuak, formula honen bidez:

$$P_i = 50 \times (B_i/5)$$

Lizitazioaren prezio berdina duten eskaintzek 0 puntu jasoko dituzte.

Formula horrek erreferentzia juridikoetatik ateratako baldintzak betetzen ditu, kontratazio-arloko kontsulta- eta kontrol-organoek hainbatetan aipatutakoak: funtzio lineala da, “prezioa/beherapena” aldaketan proportzionaltasuna bermatzen du “lortutako puntuazioaren” aldean, ez dago asetasun-atalaserik, ez da puntuaziorik ematen eskaintza bat aurkezte hutsagatik, eta ez dio puntuazio handiagoa ematen eskaintzen “batez bestekoari”.

Horren bidez, % 5eko tartearen zuzenketa proposatzen da, “proportzional-lineal zuzena” formula baino proportzionaltasun hobea lortzeko, batez ere lizitatzailleek proposatutako bajak txikiak direnean. Hala, proposatutako zuzenketa-faktorearen arabera, “bajen arteko desberdintasunak” aldatuz gero, “emandako puntuazioen arteko desberdintasunak” etengabe eta modu kontrolatuan aldatzen dira.

Beraz, Bermeoko Udalaren lizitazio-prozeduretan zuzeneko formula “lineal/proportzional zuzendua” erabiltzea proposatzen da, kontratazio publikoaren parametro objektiboak hobekien betetzen dituen baita.



7. Eranskina

RESOLUCIÓN

Exp. nº:
segregación

Licencia de

Con fecha X y nº de registro de entrada X, se presenta por parte de D., en nombre y representación de Dña., solicitud de licencia de segregación de la parcela nº 19 del polígono 11 de X, sita en el núcleo rural de X de este término municipal.

Se emiten informes del Arquitecto Municipal y de la TAG de Disciplina Urbanística, de fechas X y X, respectivamente.

Resulta de aplicación lo dispuesto en el artículo 38 y siguientes de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, en concordancia con el PGOU de X y el Plan Especial de Protección y Mejora del medio Rural de X.

De conformidad con las atribuciones delegadas mediante el Decreto de Alcaldía nº 1407, de fecha 15 de julio de 2019, en el Concejal Delegado de Urbanismo.

DISPONGO

PRIMERO.- Conceder la licencia solicitada por D. X para la segregación de la parcela nº 20 del polígono 11 de X, sita en el núcleo rural de X, cuyos datos se detallan a continuación:

Finca matriz:

Finca segregada:

Resto de finca matriz:

SEGUNDO.- Agrupar la porción de terreno segregada, anteriormente descrita como la parcela resultante 20-B, a la parcela nº 22 del polígono 11, cuya descripción es la siguiente:

TERCERO.- En el caso de que exista algún error, inexactitud o variación de datos en la descripción de la segregación y/o agrupación, será el propio interesado

quien deberá subsanar dicha deficiencia para poder escriturarla e inscribirla correctamente.

CUARTO.- La presente licencia se concede bajo las siguientes condiciones:

- Dentro del plazo de tres meses siguientes a la notificación de la presente, se presentará copia en el ayuntamiento del documento público en el que se practique la segregación, el cual, deberá incorporar el texto íntegro de la presente licencia.
- Si no presenta el documento citado en el párrafo anterior, se declarará la caducidad de la licencia
- Asimismo, en igual plazo, se dará cuenta del cambio habido en la propiedad del suelo y límites de parcelas en el catastro, a efectos de su actualización.

QUINTO.- Se deberá dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 4.5.14 del PGOU de X respecto a la protección del dominio público.

SEXTO.- Esta licencia se entiende concedida salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de tercero, y bajo la exclusiva responsabilidad del titular de la misma.

SÉPTIMO.- Dar traslado a los servicios económicos municipales, a los efectos de liquidar las tasas correspondientes.

OCTAVO.- Notificar la presente resolución a la persona interesada, con indicación de los recursos procedentes.

En Bermeo, a fecha de firma electrónica.

DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

Xedea.- Jabari publikoan loreak banatzeko baimen-eskaria

TXOSTEN JURIDIKOA

Aurrekariak

Bakarra.- 2020ko irailaren 22an eta 7493 sarrera zenbakiarekin, María Lourdes Ruiz Bilbao andreak, baimena eskatu du jabari publikoan loreak banatzeko, urriaren 30ean eta 31n eta azaroaren 1ean.

Aplikagarria den araudia

- 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Herri Administrazioen Ondareari buruzkoa
- 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duena
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearena
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena
- Bermeoko trafikoa, zirkulazio eta bide segurtasuna arautzen duen udal ordenantza

Oinarri juridikoak

Lehenengoa.- Jabari publikoko ondasunen erabilerak hainbat intentsitate-maila ditu, eta erabilera- eta aprobetxamendu-modalitateak bi irizpideren arabera sailkatzen dira: batetik, erabilera bera hartzen duena, eta, bestetik, herri-jabariko ondasunaren xedeari dagokion helburu-materiala. Lehenengo irizpidean, printzipio orokor eta oinarritzko gisa abiatzen da erabilera komun eta kolektiboa, orokorra zein berezia, eta administrazioak printzipio hori salbuetsi dezake erabilera pribatiboak emanaz. Beste kasu batzuetan, xede-irizpidearen arabera, erabilera arrunta eta erabilera anormala edo ohiz kanpoko bereizten dira, azken kasu horretan ondasunaren xedearekin bat ez datorrenean.

Erabilera arrunt berezia tokiko jabari publikoaren erabilera komunaren azpimota bat da, eta ez du erabilera komuna baztertzeko, baina mugatu eta murrizten du. Egia esan, erabilera komuneko modalitate bat da, 1372/1986 Errege Dekretuak egiten duen sailkapenarekin bat etorritik.

Kasu honetan, bide publikoan loreak banatzea jabari publikoko erabilera arrunt berezia da, hau da, erabilera komuna galarazi gabe, erabilera horren arriskugarritasuna edo intentsitatea, urritasun kasuetan lehentasuna, errentagarritasun berezi bat edo antzeko beste batzuk lortzea ahalbidetzen duena, denei dagokien erabileraren gehiegizko erabilera edo erabilera horren galera eraginez¹.

¹ HAOLren 85.2 artikulua: *“Es uso que implica un aprovechamiento especial del dominio público el que, sin impedir el uso común, supone la concurrencia de circunstancias tales como la peligrosidad o intensidad*



Zentzu horretan, jabari publikoa erabili ahal izateko, udalak alde zuzenetik baimena eman behar du, 33/2003 Legearen 84. artikulua ezarritakoaren arabera². Izan ere, inork ezin izango du agintari eskudunak emandako titulurik gabe, jabari publikoko ondasunak okupatu edo denei dagokien erabilera-eskubidea gainditzeko moduan erabili. Ildo berean azaldu dira 1372/1986 Errege Dekretuko 77. artikulua, zein Bermeoko Trafikoa, Zirkulazio eta Bide Segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren 61. artikulua³.

Bigarrena.- Baimena emateko prozedura

Loreak jabego publikoan banatzeak dakarren erabilera zehaztu ondoren (erabilera komun berezia), dagokion baimena emateko prozedura ezarri behar da, kasu honetan lizentzia izango dena. Izan ere, 1372/1986 Errege Dekretuaren 77. artikulua hurrengo eartzen du: *"el uso común especial normal de los bienes de dominio público se sujetará a licencia, ajustada a la naturaleza del dominio, a los actos de su afectación y apertura al uso público y a los preceptos de carácter general"* eta bigarren atalean ondokoa dio: *"las licencias se otorgarán directamente, salvo si por cualquier circunstancia se limitare el número de las mismas, en cuyo caso lo serán por licitación y, si no fuere posible, porque todos los autorizados hubieren de reunir las mismas condiciones, mediante sorteo"*.

Era berean, 33/2003 Legearen 92. artikulua honela dio: *"las autorizaciones se otorgarán directamente a los peticionarios que reúnan las condiciones requeridas, salvo si, por cualquier circunstancia, se encontrase limitado su número, en cuyo caso lo serán en régimen de concurrencia y si ello no fuere procedente, por no tener que valorarse condiciones especiales en los solicitantes, mediante sorteo, si otra cosa no se hubiese establecido en las condiciones por las que se rigen"*.

Beraz, eskaera bakarria aurkeztu denez, ez dago lehiaketa mugaturik, eta zuzenean eman ahalko zaio lizentzia eskatzaileari. Horiek horrela, baimenak emateko iter prozedura honako hau da:

a) Hasiera

Interesdunak dagokion eskaera aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 66. artikuluan ezarritako moduan.

del mismo, preferencia en casos de escasez, la obtención de una rentabilidad singular u otras semejantes, que determinan un exceso de utilización sobre el uso que corresponde a todos o un menoscabo de éste".

² Azaroaren 3ko 33 /2003 Legearen 84. artikulua oinarritzat hartuko da, Bigarren Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

³ Bermeoko Trafikoa, Zirkulazio eta Bide Segurtasuna arautzen duen Udal Ordenantzaren 61. artikulua: *"la colocación de contenedores, veladores, kioscos, tenderetes, instalaciones o cualquier otro obstáculo en la vía pública, requiere la previa autorización municipal, debiendo ajustarse los interesados a las indicaciones en cuanto a protección, señalización o iluminación que en la misma se les haga, en aras de garantizar la seguridad de los demás usuarios"*.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400051E9D00C4L0G6A2H3F5

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
13:54:39

EXPEDIENTE ::
2020ATB_ESK_1020

Fecha: 22/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



b) Instrukzioa

Lizentzia eman aurretik, udal zerbitzuek beharrezko txostenak egin beharko dituzte, eskatutako lizentzia legediarekin bat datorrela frogatzeko.

Prozeduraren instrukzioan zehar lizentziaren eraginpeko beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea derrigorrezkoa den kasuetan, udalak eskabidea aurkeztu dela jakinarazi beharko die dagokion txostena egin dezaten, bere eskumenaren arabera⁴. Ezarritako epean txostenik ematen ez bada, udalak lizentzia emateko prozedurarekin jarraitu ahal izango du⁵. Kasu honetan, ez da beharrezkoa beste administrazio publiko batzuek txostenak egitea.

c) Ebazpena

Dagokion txostena egin ondoren, organo eskudunak lizentzia emateari buruzko ebazpena igorriko du, espedientearen datu guztiak ikusita. Kasu honetan, alkateari dagokio baimena emateari buruzko ahalmena, 7/1985 Legearen 21.1.q) artikuluan agindutakoaren arabera.

Hirugarrena.- Baimenaren ezaugarriak

Horrelako lizentziak ematea administrazioak jabari publikoko ondasunen erabilera bereziaren salbuespena arautzeko duen eskumenaren barruan sartzen da. Hala ere, gogoratu behar dugu ahalmen hori konstituzio-zuzenbidearen mende dagoela botere publikoen arbitrariotasuna debekatzeko⁶; halako moldez baimen hori ukatzea arrazoiz justifikatu beharko da, eta hori da diskrezioren eta arbitrarioaren arteko banaketalerroa⁷.

⁴ Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 79. artikulua: *"a efectos de la resolución del procedimiento, se solicitarán aquellos informes que sean preceptivos por las disposiciones legales, y los que se juzguen necesarios para resolver, citándose el precepto que los exija o fundamentando, en su caso, la conveniencia de reclamarlos"*.

⁵ Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 80.4 artikulua: *"si el informe debiera ser emitido por una administración Pública distinta de la que tramita el procedimiento en orden a expresar el punto de vista correspondiente a sus competencias respectivas, y transcurriera el plazo sin que aquél se hubiera emitido, se podrán proseguir las actuaciones"*.

⁶ Espainiako Konstituzioko 9.3 artikulua: *"la Constitución garantiza el principio de legalidad, la jerarquía normativa, la publicidad de las normas, la irretroactividad de las disposiciones sancionadoras no favorables o restrictivas de derechos individuales, la seguridad jurídica, la responsabilidad y la interdicción de la arbitrariedad de los poderes públicos"*.

⁷ Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2001eko abenduaren 10eko 998. epaia, 4. OJ: *"tratándose como se trata de actuaciones adornadas de un marcado carácter técnico-discrecional, y donde tienen cabida, por tanto, diversas soluciones distintas e inicialmente lícitas, es al titular de la competencia administrativa a quien incumbe optar entre las diversas posibilidades, y la fiscalización jurisdiccional queda limitada a los elementos reglados del acto o del procedimiento al que se deba acomodar, a los fines del mismo –desviación de poder- a la concurrencia de los llamados hechos determinantes, y a la observancia de aquellos principios generales del sistema de los que ninguna actuación de los poderes públicos puede prescindir, igualdad, proscripción de la arbitrariedad."*



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400051E9D00C4L0G6A2H3F5

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
13:54:39

EXPEDIENTE ::
2020ATB_ESK_1020

Fecha: 22/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Halaber, baimen hauek ez dira polizia baimenekin nahastu behar (hirigintza, jarduera eta antzeko lizentziak); izan ere, horiek lehendik eskubidea duen interesdunak eskatutakoa erabiltzearen aurka duen trabak kentzen dituen bitartean, herri-jabariaren baimenak benetako tolerantzia-egintzak dira jabariaren erabilera bereziko, eta partikularrak ezin du alde aurretik inolako eskubiderik aldarrikatu⁸. Izan ere, baimen horiek alde bakarreko administrazio-egintzak dira, ezeztagarriak, eta horrek egoera juridiko prekarioa dakar baimendunarentzat, jabari publikoa baimendutako moduan erabiltzera mugatzen delako, eta beti ere baimena indarrean dagoen bitartean.

Azken horren harira, gogoratu behar da lizentzia prekarioan emango dela beti, eta udalak bide publikotik kentzeko agindu ahal izango duela, arrazoituta, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik sortu gabe, lizentzia eman zeneko inguruabarrak desagertzen direnean edo ez ematea justifikatzen duten inguruabarrak aurkeztu direnean, 33/2003 Legearen 92.4 artikulua (oinarrizkoa) xedatzen duenaren arabera. Horiek horrela, administrazio emaileak bere kabuz ezeztatu ahal izango baititu baimenak, edozein unetan, interes publikoko arrazoiengatik, eta ez du kalte-ordainerako eskubiderik sortuko, baldin eta geroago onartutako baldintza orokorrekin bateraezinak badira, jabari publikoan kalteak eragiten badituzte, interes publiko handiagoko jardueretarako erabiltzea eragozten badute edo erabilera orokorra kaltetzen badute. Ezeztatze hori, Parejo Alfonsok⁹ adierazi duenez, ezin da baimenaren ezeztapentzat hartu; izan ere, baimenean bertan inskribatutako lege-baldintza suntsiarazle bat betetzen dela balioesteko eta alde bakarreko adierazpena egiteko ahalmena eguneratu da. Hori dela eta, autore horrek uste du ez dagoela kontraesanik 39/2015 Legearen 109.1 artikuluan ezarritako administrazio-egintzen ezeztazintasunarekin.

Horren harira, jurisprudentziak berak adierazi du ez dela bidezko konfiantzaren printzipioa urratzen, baldin eta administrazio-lizentzia bat eman ondoren, administrazioak egiaztatzen badu inguruabar berriak daudela edo baimena emateko baldintzak ez direla betetzen, jabari publikoa ez erabiltzeko moduan. Horrela, egintza arautua edo herritarren eskubidea ez denez, udalak arrazoituta eta interes orokorra kontuan hartuta, emandako baimenak indarririk gabe utzi ahalko ditu¹⁰.

⁸ Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren epaia, 520/2014 zk., 2014ko ekainaren 4koa, rec. 1616/2012: *“De acuerdo con una antigua y consolidada jurisprudencia del Tribunal Supremo seguida reiteradamente por esta Sección 2ª TSJM el uso especial debe ser concedido mediante licencia o autorización y es además revocable por razones de interés público y en general sin derecho a indemnización, pues en sentido estricto no es más que un acto unilateral de tolerancia por parte de la administración (...).”*

⁹ Parejo Alfonso, L., Régimen de la utilización de los bienes de dominio público, ob. Col. Comentarios a la Ley 33/2003, del Patrimonio de las Administraciones Públicas, 2004, 449. orrialdea.

¹⁰ Auzitegi Gorenaren 5212/1997 epaia, 1997ko ekainaren 4koa.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400051E9D00C4L0G6A2H3F5

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
13:54:39

EXPEDIENTE ::
2020ATB_ESK_1020
Data: 22/09/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidaidea:
Erregistro nagusia



Ondorioak

Horregatik guztiagatik, eremu publikoa okupatzeko eskatzen den lizentzia eman ahalko da, loreak banatzeko, txosten honetan ezarritako prozedura jarraituz.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan.

Nerea López Angulo,

Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E400051E9D00C4L0G6A2H3F5

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 23/10/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 23/10/2020
13:54:39

EXPEDIENTE ::
2020ATB_ESK_1020

Fecha: 22/09/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Xedea.- Bermeoko Udalaren, Udal Kirol Patronatuaren eta Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuaren eraikinak eta instalazioak garbitzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea

TXOSTEN JURIDIKOA

Aurrekariak

Lehenengoa.- Zerbitzu Sailak erreferentziako espedientea igorri du, beharrezkoak diren tramiteak egin ondoren hura onets dadin.

Bigarrena.- Espedientea aztertu ondoren, teknikari sinatzaileak txosten juridiko hau egin du kontratazio izapidea onartu aurretik.

Aplikagarria den araudia

- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora (SPKL).
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena (APKLEO).

Oinarri juridikoak

Lehenengoa.- Araubide juridikoa

SPKLren 2. artikulua xedatzen duenez, arau horren menpe daude sektore publikoa osatzen duten erakundeek egiten dituzten kostu bidezko kontratuak. Horien bidez, kontratistak irabazi ekonomikoren bat lortzen du (zuzenean edo zeharka), izaera juridikoa edozein izanda ere.

Txosten honen xede den kontrataziotik ondorioztatutako prestazioak zerbitzu-kontratu bati dagozkionak dira, kontratu hori SPKLren 17. artikuluan¹ jasotako moduan eta ezaugarriekin ulertuta.

SPKLren arabera, zerbitzu-kontratuak administratiboak izango dira administrazio publiko batek egiten baditu.

¹ SPKLren 17. artikulua: *“son contratos de servicios aquellos cuyo objeto son prestaciones de hacer consistentes en el desarrollo de una actividad o dirigidas a la obtención de un resultado distinto de una obra o suministro, incluyendo aquellos en que el adjudicatario se obligue a ejecutar el servicio de forma sucesiva y por precio unitario.”*

No podrán ser objeto de estos contratos los servicios que impliquen ejercicio de la autoridad inherente a los poderes públicos.”



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020 09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004

Fecha: 27/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



Horri dagokionez, SPKLren 3.1.a) artikulua hurrengo ezartzen du: *“sektore publikoaren partetzat hartzen dira toki-administrazioa osatzen duten erakundeak”*.

Bestalde, SPKLk erregulazio harmonizatuari lotutako zerbitzu-kontratuak eta erregulazio harmonizatu horri lotuta ez daudenak ere bereizten ditu. Toki-eremuan, SPKLren 22.1.b) artikulua arabera, 214.000,00 euroko edo gehiagoko balio estimatua duten zerbitzu-kontratuak erregulazio harmonizatuaren pean daude (kopuru hori abenduaren 16ko HAC/1272/2019 Aginduaren arabera eguneratu da²). Kontratu bat erregulazio harmonizatuaren mende egoteak, bereziki, Europar Batasunean publizitatea egiteko betebeharra du ondorio bezala, iragarkiak Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialera bidalita.

Aztergai dugun kontratuaren xedearn eta balio zenbatetsiaren arabera, erregulazio harmonizatuari lotutako kontratu bat da, haren balio estimatua 214.000,00 eurokoa edo handiagoa baita.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 44. artikuluko eta hurrengoetako errekurtsoen araubide berezia aplikatuko zaio, 100.000,00 eurotik gorako balio estimatua duelako.

Azkenik, kontratu hau SPKLren 135. artikuluan ezarritako lizitazioaren publizitate-erregimenaren mende dago: lizitazioaren iragarkia EBAOn argitaratuko da lehenik, eta, ondoren, kontratatzailearen profilean, baldin eta 48 orduko epea igaro bada bidalitako iragarkia jaso dela baieztatzen denetik, eta iragarkia ez bada egunkari horretan argitaratu. SPKLren 156.5 artikulua arabera, lizitazioaren iragarkia kontratugilearen profilean gutxienez eskaintzak aurkezteko epea bukatu baino 15 egun natural lehenago argitaratu behar da. Berebat, iragarkiaren edukia SPKLren III. eranskinari egokitu behar zaio.

SPKLren 156. artikulua eta XII. Xedapen Gehigarriaren arabera, erregulazio harmonizatuaren menpeko kontratuetan proposamenak aurkezteko epea ez da 35 egun naturaletik beherakoa izango, lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik kontatzen hasita³. Hala ere, kasu honetan epea 5⁴

² Orden HAC/1272/2019, de 16 de diciembre, por la que se publican los límites de los distintos tipos de contratos a efectos de la contratación del sector público a partir del 1 de enero de 2020.

³ Galiziako Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoko Auzitegiak, 15/2018 zenbakiko ebazpenean, erabaki du proposamenak aurkezteko epea iragarkia bidali eta hurrengo egunean hasi behar dela, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30.3 artikuluan jasotako aipamen orokorra aplikatuz (artikulu hori subsidiarioki aplikatzekoa da, gaur egun, SPKLren IV. Azken Xedapenaren bidez). Era berean, Andaluziako Juntaren Kontratu Errekurtsioen Administrazio Auzitegiak, 278/2019 Ebazpenean, gogorarazi du, epearen egunen zenbaketan SPKLren 156. artikulua *“lizitazio-iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Bulegora bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita”* terminoa erabiltzen badu ere, zenbaketa bidalketa-egunaren biharamunean hasten dela, eta ez bidalketa-egunean bertan.

⁴ SPKLren 156.3.c) artikulua.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020 09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004

Fecha: 27/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



egunez murriztu ahalko da, eskaintzak baliabide elektronikoen bidez aurkezten badira, XV. Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat.

Bigarrena.- Espedientearen tramitazioa eta esleitzeko prozedura

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 131. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, administrazio publikoek egiten dituzten kontratuak esleitzeko, normalean, kalitate-prezio erlazio onenaren printzipioan oinarritutako esleipen-irizpideak erabiliko dira, prozedura irekia edo prozedura murriztua erabiliz.

Espediente honetan prozedura irekia erabiltzea proposatzen da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 156. artikulutik 158. artikulura bitartean arautua, eta baldintza-agirian irizpide bat baino gehiago ezartzen dira esleitzeko. Irizpide horiek ekonomikoak eta kualitatiboak dira.

Bestalde, aipatu behar da, SPKLren 326.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, prozedura honetan Kontratazio Mahaiak esku hartu beharko duela prozeduran.

Hirugarrena.- Kontratazio-organo eskuduna

Kasu honetan, kontratazio-organo gisa duen eskumena Osoko Bilkura da, balio estimatuaren zenbatekoagatik eta kontratuaren iraupenagatik, SPKLren II. Xedapen Gehigarrian xedatutakoaren arabera.

Laugarrena.- Kontratazio espedientearen edukia eta tramiteak

Kontratazio-espedientearen edukiari eta izapideei dagokienez, SPKLren 116. eta 117. artikuluetan eta III. Xedapen Gehigarrian xedatutakoarekin bat etorri jarraiki, honako pausuk bete beharko dira:

a) **Kontratazio-organoak hasi behar du espedientearen edukia**, eta kontratuaren beharra arrazoituz, SPKLren 28. artikuluan aurreikusitako moduan. Udalaren organigrama kontuan hartuta, hasiera hori sail sustatzailearen txostenarekin gauzatzen da, dagokion zinegotzigoak onetsia, eta horrek lizitazio espedienteari hasiera ematea dakar.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 28. artikuluen arabera, proposatutako kontratua beharrezkoa izan behar da korporazioaren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko, eta, esleipena hasi baino lehen, espedienteko dokumentazioan zehaztu behar da zer premia bete nahi diren proiektatutako kontratuaren bidez, baita zer helburu eta eduki bete nahi diren ere.

Bestetik, SPKLren 116. artikuluen edukia nahiko nahasgarria da; izan ere, kontratugilearen profilean argitaratzeko beharri dagokionez, ez du argitzen hasteko probidentzia edo onesteko erabakia bera den. Nolanahi ere, zentzuzkoa dirudi ulertzea proposatutako kontratazioaren arrazoen gardentasuna bermatu nahi duela, eta,



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020 09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004

Fecha: 27/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia



horretarako, nahikoa dela espedientearen onarpen-akordio hori kontratugilearen profileen argitaratzea.

b) Espedientea **kontratuaren xede osoari buruzkoa** izango da, SPKLren 99.7 artikuluan loteka esleitutako kontratuetarako aurreikusitakoari kalterik egin gabe. Espedientearen behar bezala justifikatu beharko dira hurrengo puntuak:

- Lizitazio-prozeduraren hautapena.
- Kaudimen tekniko edo profesionalaren, eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren irizpideak. Kasu honetan, lizitatzailerik interesdunen sailkapena derrigorrezkoa ez denez, aipatutako irizpideen ordez aurkeztu nahi dutenek bakarrik egiaztatuko dute.
- Kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpideak.
- Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.
- Kontratuaren balio estimatua, hura osatzen duten kontzeptu guztiak adierazita, lan-kostuak barne, halakorik bada.
- Kasuan kasuko prestazioak kontratatuz asebeten nahi den administrazioaren beharrak; eta kontratuaren xedearekin duen harremana, zuzena, argia eta proportzionala izan beharko duena.
- Zerbitzu-kontratuaren, baliabide nahikorik ez dagoela dioen txostena edo justifikazioa.

c) Espedientearen **honako dokumentuak egon beharko dira**:

- Kontratazio organoak espedientea hasteko emandako erabakia.
- Espedientea sustatu duen arloaren justifikazio-memoria edo txostena, bai eta bitarteko nahikorik ez dagoela dioen txostena ere, zerbitzu-kontratua baita. Azken dokumentu hori aipatutako agirien barruan sar daiteke.
- Kontratua arautuko duten baldintza agiri administratiboak zein plegu teknikoak.
- Kreditua badagoela egiaztatzeko ziurtagiria eta kontu-hartzaitzaren aldeko aurreko fiskalizazioa, aurrekontu-araudian aurreikusitako moduan.
- Kontratazio Sailaren txosten juridikoa. Era berean, Udal Idazkariaren txostena beharrezkoa da kontratazio espedientearen onarpen kasuetan. Horiek horrela, idazkariak txosten hau berretsi ahalko du⁵ edo, egoki iritziz gero, beste txosten bat egin.
- Kontratu berri bakoitzak, toki-erakundeak Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko, apirilaren 27ko, 2/2012 Lege Organikoaren 7.3 artikulua eskatzen dituen printzipioak betetzean izango dituen ondorioak baloratzea.

⁵ Toki Administrazioaren funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3.4 artikulua.



Agiri hau benetakoa dela udalaren egoitza elektronikoan egiaztatuta ahal dozu.

Kodea:
07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020 09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004
Data: 27/04/2020
Lekua: Bermeo
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Era berean, organo kontu-hartzaileak kontratu guztiak jaso behar ditu, kontratu txikiak izan ezik, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 67.2.d) artikulua eskatzen duen inbertsioen fiskalizazio materialaren funtzioa betez. Hala ere, lan hori egitea ezinezkoa bada, kontratuaren xedea jasotzeko gaitasun nahikoa duen teknikariren bati eskuordetu ahal izango zaio zeregin hori. Edonola ere, teknikari hori ez du izan behar kontratuaren arduraduna.

d) Kontratazio-espeditentea osatu ondoren, kontratazio-organoak **arrazoitutako ebazpena** emango du, espeditentea onetsiz eta esleipen-prozedura irekiz. Ebazpen horrek gastua onestea ere ekarriko du, salbu eta aurrekontua alde aurretik ezarri ezin bada. Ebazpen hori kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da.

Beste alde batetik, alde aurretik izapidetu ahal izango dira urte batean edo gehiagotan gauzatzen diren eta hurrengo ekitaldian hasi behar diren kontratuak, edo, beste erakunde publiko edo pribatu bati eskatutako mailegu, kreditu edo diru-laguntza baten mende dauden kontratuak. Esleipena eteteko baldintza izango da kontratua finantzatu behar duten baliabideak benetan finkatzea. Horretarako, kredituak hitzeman ahalko dira toki administrazioaren aurrekontu arauetan zehazten diren mugekin.

Bosgarrena.- Espedientea osatzen duten dokumentuak eta atal batzuen justifikazioa

- Espedientea osatzen duten dokumentuak

a) Kontratazio organoaren espeditentea hasteko izapide-eskaera eta txostena. Zerbitzu Saileko Teknikariak sinatutako txostena jaso da, eta horrekin batera, 2020ko abuztuaren 21eko espeditenteari hasiera emateko Zerbitzuetako Zinegotziaren probidentzia.

b) Kontratuaren ardura duen teknikariaren txostena. 2020ko uztailaren 17ko Zerbitzu Saileko Teknikariaren justifikazio txostena dago.

c) Baldintza agiri administratiboak eta teknikoak. Bi dokumentu horien zirriborroak daude, espeditentea sustatu duen unitateak eta Idazkaritza Sailak prestatuak, hurrenez hurren. Agiri horiek espeditentea onetsi aurretik edo aldi berean onartu beharko dira.

d) Kreditua badagoela egiaztatzen duen ziurtagiria eta esku-hartzearen aurreiazko fiskalizazioa. 2020ko irailaren 23ko RC dago, baina fiskalizatzeke dago espeditentea.

- Atal batzuen justifikazioa

a) Kontratuaren beharrezana eta baliabide eskasia

Txostenean kontratuaren beharrezana arrazoitu behar da, SPKLren 28. artikuluan aurreikusitako moduan, eta kontratugilearen profilean argitaratu. Gainera, zerbitzu-kontratua denez, SPKLren 116.4 artikulua aipatzen duen baliabide-eskasiaren justifikazioa ere erantsi behar da.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020
09:51:47

EXPEDIENTE ::

2020KON_IRE_0004

Data: 27/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:

Erregistro nagusia



Alderdi horiek justifikatzea garrantzi handiko kontua da; izan ere, ase beharreko premien alde aurreko definizioaren helburua da zerbitzuak kontratatzeke funtsen erabilera eraginkorra lortzea. Horrek lotura zuzena du gastu publikoaren legezketasunarekin eta eraginkortasunarekin.

Alde horretatik, espediente honetan, baliabide eskasiaren eta bete beharreko premien justifikazioa oso urria da SPKLren 28. artikuluko eskakizuna betetzat emateko⁶, eta, beraz, ez da nahikotzat jotzen.

Ildo horretan, 1113 zk.ko Kontu Auzitegiaren txostenak, Kantabriako Autonomia Erkidegoko toki-erakundearen kontratazioari buruzkoa (2012ko ekitaldia), hurrengoa adierazi zuen: *“en el contrato del servicio de limpieza de edificios municipales (...) la necesidad del mismo no se justificó suficientemente, no constando los motivos por los cuales se consideró más conveniente para los intereses públicos la externalización del servicio que su prestación mediante los medios personales y materiales propios del ayuntamiento, así como tampoco la realización de un estudio comparativo de costes que permitiera constatar que la prestación mediante medios externos resultaba más económica para la hacienda municipal, habida cuenta de la permanencia y el carácter reiterado del servicio objeto de prestación (...).”*

Era berean, 1254. zk.ko Kontu Auzitegiaren txostenak, Kanpo-kontrolerako organo propiorik ez duten autonomia erkidegoen eta hiri autonomoen kontratazioari buruzko fiskalizazio-txostenak (2014 eta 2015 ekitaldietakoak), honako hau esan zuen: *“la necesidad e idoneidad del contrato se justifica genéricamente por finalización del contrato anterior, sin que se invoque la insuficiencia de los medios o materiales propios para satisfacer las correspondiente necesidades y no se justifica la conveniencia de no ampliación de los mismos, lo que resulta necesario para verificar la idoneidad de los contratos, a los efectos del artículo 22 del TRLCSP, dada la reiteración, periodicidad y permanencia con que deben prestarse los mencionados servicios.”*

Azkenik, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren 2015etik 2017ra bitarteko ekitaldietako kontratazioaren fiskalizazio-txostenak, hurrengoa adierazi zuen: *“en relación con la justificación de la necesidad de la contratación el informe apunta en sus conclusiones que no constan estudios comparativos de los costes que implicaría la internalización.”*

⁶ SPKLren 28. artikulua: *“las entidades del sector público no podrán celebrar otros contratos que aquellos que sean necesarios para el cumplimiento y realización de sus fines institucionales. A tal efecto, la naturaleza y extensión de las necesidades que pretenden cubrirse mediante el contrato proyectado, así como la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, cuando se adjudique por un procedimiento abierto, restringido o negociado sin publicidad, deben ser determinadas con precisión, dejando constancia de ello en la documentación preparatoria, antes de iniciar el procedimiento encaminado a su adjudicación”.*



b) Lizitazio-prozeduraren hautapena

Kasu honetan proposatutako prozedura irekia denez, ez da justifikazio handiagorik eskatzen, prozedura hori, eskuarki, murriztuaren ondoan erabili ohi baita. Ildo horretatik, SPKLren 63. artikulua, kontratatzailearen profilean argitaratu behar den informazioari dagokionez, ezartzen du esleipenerako erabilitako prozeduraren justifikazioa argitaratuko dela prozedura irekia edo murriztua ez den beste prozedura bat erabiltzen denean, eta hortik ondorioztatzen da prozedura ireki zein murriztuetan justifikatu beharrik ez dagoela.

c) Kaudimen tekniko, profesional eta ekonomiko eta finantzarioko irizpideak

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa: horiek egiaztatzeko baldintzak eta modua 87.3 artikuluan ezarritakoak dira. Artikulu horrek ezartzen ditu zehaztasunik ezean aplikatu beharreko justifikazio-irizpide eta -bitartekoak. Alde horretatik, 116.4.c) artikulua aipatzen duen justifikazio baldintza betetzat jotzen da.

- Kaudimen tekniko edo profesionala: baldintzak, zenbatekoak eta horiek frogatzeko modua 90.2 artikuluan ezarritakoekin bat datoz. Artikulu horrek zehazten ditu zehaztu ezean aplikatu beharreko justifikazio-irizpide eta -bitartekoak. Hala, 116.4.c) artikulua aipatzen duen baldintza betetzat jotzen da.

Ordezko sailkapena dago, APKLEOn aurreikusitako moduan⁷.

d) Kontratua esleitzeko irizpideak

Justifikazio txostenean esleipenerako irizpideak hautatu eta justifikatzeari buruzko aipamena oso laburra da eta orokorregia, hortaz, ez da nahikoa SPKLren eskakizuna betetzat emateko. Horri harira, azpimarratu behar da esleipen-irizpide guztiak behar bezala justifikatu behar direla, SPKLren 116.4 artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Auzitegi Gorenak zehaztu duenez, *“behar bezala justifikatzea”* eskatzean, legegilea administrazioaren jardura jakin batzuk *“motibatze”* betebeharra baino harantzago doa; eta hori, aginduak *“justifikatzeaz”* hitz egiten duelako eta ez *“motibatzeaz edo motibazioaz”* hitz egiten duelako. Horrek esan nahi du ez dela nahikoa arauaren egitatezko kasuak gertatzen direla esplizituki aipatzea, baizik eta, gainera, behar bezala justifikatu behar dela.

Zentzu horretan, egokia da gai honen inguruan emandako ebazpenak aipatzea. Horrela, Kanariar Uharteetako Autonomia Erkidegoko Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren, urriaren 29ko, 184/2018 Ebazpenak hau ezartzen du:

“En lo que se refiere los criterios de adjudicación, no cabe dar por justificada la elección de los mismos por el mero hecho de que se encuentren relacionados en el

⁷ Abuztuaren 28ko 773/2015 Errege Dekretuak emandako idazketan berrian.



apartado 7 de la ya citada memoria justificativa, sin detallar motivación alguna, en especial en lo que se refiere a los de carácter cualitativos, puesto que de ningún modo queda aclarada, ni la oportunidad de tenerlos en cuenta como indicadores para determinar cuál es la mejor oferta, ni la de la ponderación que les otorga a cada uno de ellos.”

Era berean, Gaztela eta Leongo Administrazio Auzitegi Nagusiaren, otsailaren 14ko, 15/2019 Ebazpenak, hurrengoa dio:

“En el presente caso, el informe del órgano de contratación no justifica de un modo suficiente, ni tan siquiera realiza ningún tipo de argumentación al respecto, sobre la conveniencia de la utilización de tal criterio de adjudicación en el contrato examinado, ni sobre el modo genérico en el que aparece previsto en los pliegos. (...) el órgano de contratación deberá proceder con la máxima diligencia, justificando, en su caso, la utilización de tal criterio, y valorando de forma suficientemente ponderada la puntuación relativa que pudiera merecer tal criterio en los términos expuestos.”

Horretaz gain, eta espedientearen justifikazio gehiago ez dagoenez, zalantzak sortzen ditu ingurumen kalitatearen ziurtagiriak edukitzeari buruzko esleipen irizpidea. Lege-doktrinak tradizionalki bereizi egiten ditu *“hautapen kualitatiborako irizpideak”*, lizitatuzaileen kualifikazioei eta haien kaudimenari dagozkienak, eta kontratua esleitzeko irizpideak, lizitatuzaile bakoitzak aurkezten duen eskaintza zehatza baloratzen dutenak. Oro har, esleipen-irizpideak objektiboak izan behar dira, hau da, eskaintzaileen proposamenen ezaugarri objektiboak eta ez subjektiboak⁸. Beraz, printzipioz, ez dira egokiak kontratua gauzatzeko gaitasunarekin zerikusia duten esleipen-irizpideak, baldin eta kaudimen teknikoaren zati gisa eskatu behar diren alderdiak jasotzen badituzte⁹. Horregatik, kalitate-irizpideak esleipen-irizpide gisa jaso ahal izateko, kontratuaren xedea den produktuaren edo zerbitzuaren berezko ezaugarriarekin lotuta egon behar dira¹⁰.

⁸ Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiaren, abuztuaren 8ko, 45/2016 Erabakia: *“los criterios sociales que se incorporen al PCAP a través de los criterios de adjudicación deben estar referidos siempre a las ofertas de los licitadores y deben suponer una mejora en las condiciones de prestación del servicio, garantizando el cumplimiento de los principios que informan la contratación pública.”*

⁹ Euskadiko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Organoaren, martxoaren 2ko, 24/2016 Ebazpena: *“no caben criterios de adjudicación que están relacionados con la capacidad para ejecutar el contrato y que incluyen aspectos que, en su caso, deben exigirse como parte de la solvencia técnica”.*

Zentzu berean adierazi zen Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaia, 2009ko azaroaren 12koa, C-199/07 auzia, Batzordea Greziaren aurka, ECLI:EU:C:2009:693.

¹⁰ Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren, otsailaren 16ko, 159/2018 Ebazpena: *“la doctrina de este tribunal ha sido constante y unánime en el sentido de que los criterios de adjudicación del contrato cuando hacen referencia a características propias del producto o servicio que constituye el objeto del contrato, pero no en el caso de aquellos certificados que, (...), hacen referencia*



e) Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

SPKLren 202. artikuluan xedatutakoarekin bat, baldintza agiri administratiboen 15. klausulan, kontratuaren baldintza berezi gisa ageri da kontratista behartuta dagoela lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatuzera. Hala ere, kontratuaren xedearekin duen lotura justifikatu beharko da, SPKLren 116.4.c) artikuluan aurreikusitako moduan.

f) Kontratuaren balio estimatua

SPKLren 101.5 artikulua ezartzen du kontratazio organoak balio estimatua kalkulatzeko aplikatzen duen kalkulu metodoa administrazio baldintza agirietan agertu beharko dela beti. Txostenean ez da ageri erabilitako sistemaren azalpena; hala ere, baldintza agiri administratiboetan zehazten dira hura zehazteko kalkulaturako kostuak eta gastuak eta sistema osatzen duten elementuak (lizitazioaren zenbatekoa, luzapenak, aldaketak, etab).

g) Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua

SPKLren 110.2 artikulua aurreikusten du lizitazioaren oinarrizko aurrekontua administrazio-klausula partikularren orrian edo lizitazioa arautzen duen agirian banakatuko dela, zuzeneko eta zeharkako kostuetan eta horiek zehazteko kalkulaturako bestelako gastuetan. Txostenean zuzeneko eta zeharkako kostuak banakatuta ageri dira, baina ez beste gastu batzuk, hala nola, irabazi industrialia.

Aplikatu beharreko lan hitzarmenetik abiatuta, generoa eta lanbide kategoria bereizteko beharrari dagokionez, nahiz eta bereizketa hori egin, ez da horrela adierazi lanbide kategorietan. Bestalde, administrazio-klausulen agirietan aplikatzekoa den lan-hitzarmena agertzen da, kasu honetan Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektorearen hitzarmena (hitzarmen-kodea: 48001445011981).

h) Kontratuaren iraupena

Epea SPKLren 29. artikuluan xedatutakoari lotuko zaio, eta ez du gaindituko bertan ezarritako 5 urteko gehieneko epea (luzapenak barne). Kasu honetan, atal hau betetzen da.

i) Formula

Txostenean proposatutako formulari alderantzizko proportzionaltasuna deritzo. Formula horretan, terminoak zenbakitzailean eta koefizientearen izendatzailean inbertitzen dira, prezioaren irizpidearen puntuazio maximoa biderkatzen baitu. Inbertsio horren ondorioz, eskaintzarik onena alde batera utzita, puntuatu beharreko eskaintza zenbat eta baxuago

exclusivamente a características propias de las empresas, pues en tales casos deben configurarse como criterios de solvencia.



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020 09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004
Data: 27/04/2020
Lekua: Bermeon
Erregistro unidada:
Erregistro nagusia



izan, orduan eta puntu gehiago lortuko dira, eta alderantziko proportzionaltasun-erlazioa eratuko da bi aldagaien artean. Formula hori erabiliz gero, esleipenaren pisua gainerako balorazio-irizpideetara eraman daiteke, nahiz eta prezioaren ponderazio teoriko handia izan balorazio-irizpideen multzoarekiko, eta, horren ondorioz, ez datoz bat balio nominala eta prezioaren irizpidearen benetako balioespena.

Formula horren erabilerari buruz hainbat organo aholku-emailek eman dute iritzia, eta zalantzan jarri dute haren baliozkotasuna. Hala, martxoaren 3ko Aragoiko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen 6/2014 txostenak dio formula hori aplikatuta, prezioak gainerako esleipen-irizpideekiko duen garrantzia desitxurutzen dela, ez baitira benetan banatzen ahal diren puntu guztiak¹¹. Ildo berean adierazten dira, uztailaren 19ko Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoko Administrazio-auzitegiaren 207/2017 Ebazpena¹² eta urtarrilaren 13ko Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren 1/2017 Ebazpena¹³.

Hori dela eta, azkenean, baldintza agiri administratiboetan formula lineal proportzional zuzendua sartu da, hainbat kanpoko kontrol organok abalatu. Formula horrek, funtzio lineala du, "prezioa/beherapena" aldaketan proportzionaltasuna bermatzen du "lortutako puntuazioaren" aldean, ez dago asetasun-atalaserik, ez da puntuaziorik ematen eskaintza bat aurkezte hutsagatik, eta ez dio puntuazio handiagoa ematen eskaintzen "batez bestekoari".

Ondorioak

Aurreko guztiagatik, aldeko txostena ematen da aipatutako kontratazio-espeditenteari dagokionez, txosten honetan jasotako salbuespen eta ñabardurekin, eta, betiere, kreditu egokia eta nahikoa badago eta Udal Kontu-hartzaitzak egiten duen aurretiko fiskalizazio-txostenaren emaitza kontuan hartuta.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe.

Bermeon, orri oinean zehaztutako datan.

¹¹ Aragoiko Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen, martxoaren 3ko, 6/2014 txostena: "la conclusión –que comparte plenamente esta Junta- es que en estos casos se desvirtúa igualmente la importancia del precio respecto al resto de los criterios de adjudicación aplicados, al no distribuirse efectivamente todos los puntos posibles."

¹² Madrilgo Erkidegoko Kontratazio Publikoko Administrazio-auzitegiaren, uztailaren 19ko, 207/2017 Ebazpena: "si se ha dado relevancia a las ventajas económicas en el precio ofertado en función del porcentaje de baja ofrecido, lo proporcional será distribuir los puntos según el ahorro que cada proposición entraña para el ayuntamiento y no en cuanto se aleje o aproxime a la que hizo la mejor oferta, lo que conlleva que se produzca una escasa diferencia entre las puntuaciones de las diferentes licitadoras frente a la diferencia de porcentajes de baja."

¹³ Ebazpen honek 942 zk.ko Kontu Auzitegiaren txostenera garamatza, administrazio publikoen kontratuen legeriaren mendeko sektore publikoko entitateek 2008ko ekitaldia fiskalizatzeari buruzkoa (105, 109 eta 138. orrialdeak), eta 955 zk.ko txostenera, 2009ko ekitaldia fiskalizatzeari buruzkoa (92. eta 178. orrialdeak).



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020 09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004

Fecha: 27/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unitadea:

Erregistro nagusia



Nerea López Angulo

Idazkaritzako AOT



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E40004F28000T0E9P6E8H5L9

Sinadurea eta data

NEREA LOPEZ ANGULO - 29/09/2020
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 29/09/2020
09:51:47

EXPEDIENTE ::
2020KON_IRE_0004

Fecha: 27/04/2020

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

